

# Uri Antolamenturako Plan Nagusia egiteko prozesu parte-hartzailea

## Eraitzen txostena

Larrabetzuko Udala

Urigintza Batzordea

2009ko abenduaren 30a, eguaztena

## EGITURA

### O BLOKEA. Metodologia dala eta


1. BLOKEA. Datu soziodemografikoak
2. BLOKEA. Urigintza
3. BLOKEA. Ekonomia eta enplegua
4. BLOKEA. Udal azpiegiturak eta ekipamentuak
5. BLOKEA. Ondare historiko eta kulturala
6. BLOKEA. Ingurumena
7. BLOKEA. Garraioa

## UDALEKO TALDE POLITIKOAK

Txosten honetan, prozesu parte-hartzaile baten emaitzak jaso dira. Konsultak Larrabetzuko herritarren artean egin dira, eta helburua izan da informazioa lortzea udalerriko hurrengo Uri Antolamenturako Plan Nagusia idazteko orduan kontuan izateko.

Ados Consulting etxeak egindako lana prozesu zabalago baten barruan sartzen da: "Sortu Larrabetzu" lez da ezaguna prozesu hori eta Larrabetzuko Udaleko Urigintza Batzordeak zuzentzen dau. Txosten honetan, Batzordeari aurkeztutako proposamen teknikoa oinarri hartuta, Ados Consultingek egindako ekintzak baino ez dira jaso.

Aurreikusitako helburuak lortzeko asmoz, Ados Consultingeko teknikarien taldeak metodologia mistoa garatu dau, teknika kuantitatiboak eta kualitatiboak konbinata.



## O BLOKEA. METODOLOGIA DALA ETA

Informazioa jasoteko teknika nagusia inkestea izan da, Larrabetzuko herritarren lagin esanguratsu bati egindakoa. Kontuan hartuta 18tik gorako 1.424 herritar dagozala, lan hau estadistikei begira esanguratsua izateko, hau da, %95eko konfiantza maila eta +/- %5eko errore-marjina izan daian, beharrezkoa zan 303 inkesta egitea. Helburu hori erraz bete zan, **307** inkesta egin ziran eta (holan, errore-marjina be gitxitu egin zan apur bat).

Gainera, egindako laginketa kuotaka estratifikau zan, edade-talde bakotxak (gazteria, persona helduak eta edadekoak) Larrabetzuko herritarren artean daukan pisu proporzionalari eutsiz. Era berean, inkestak egin ziran herriko auzuneetan, ahalik eta ikuspegi zabalena eukiteko eta udalerriko leku desbardinetan bizi diranen ikuspegiak izateko, ez bakarrik herrigunean bizi diranena.

Lortutako emaitzen adierazgarritasunari jagokonez, eta laginen tamainua kontuan hartuta, ezin dogu esan adierazgarritasun estadistikorik dagoanik edade-taldeka. Halanda be, aldagai horren azterketa bat egin da, baina gitxi gorabeherakotzat hartu behar da, ez da-eta, inondik inora, talde osoaren adierazgarria.

### FITXA TEKNIKOA

Unibersoa (18 urtetik gorakoak)	1.424 lagun
Lagina	303 lagun
Konfiantza maila	%95
Errore-marjina	±%5

## O BLOKEA. METODOLOGIA DALA ETA

Informazio hori guztiori osotzeko, lehen esan dogunez, ondoko bide honeetatik lortutako informazio kualitatiboa erabili dogu: talde politikoei eta alkarteei egindako alkarrizketak, umeakaz, gaztetxoakaz, gazteakaz eta Larrabetzuko enpresari eta profesionalakaz antolatutako eztabaita-taldeak, bai eta lan-prozesua martxan egon zan bitartean zabalik egon ziran bloga eta herritarren gutunontziak be.

Gehiago zehazteko, hona hemen erabili izan diran teknika kualitatiboak:

3 alkarrizketa, udalean ordezkari-tza daukien alderdietako personei egindakoak.

8 alkarrizketa, herriko zortzi alkartetako ordezkari-iei egindakoak.

Eztabaida-talde 1, jarduera ekonomikoaren gainekoa, enpresarioakaz, langile autonomoakaz, merkatari txikiakaz eta labrantza-esplotazioakaz.

Eztabaida-talde 1, herriko 18 eta 30 urte bitarteko gazteakaz.

Eztabaida-talde 1, herriko 14 eta 17 urte bitarteko gaztetxoakaz.

Ume-foro 1, herriko 6 eta 9 urte bitarteko umeakaz.

Gainera, informazioa batzen hasi ginanean, blog bat ipini zan martxan eta herritarrentzako gutunontziak ipini ziran herrian.

Azkenik, agiria zazpi bloketan egituratu da. Blokeetako bako- txak egitura bera dauka: emaitza kuantitatiboak aurkeztu ondoren, ekarpen kualitatiboak aurkeztu dira; eta blokea ixteko, ondorioen atal labur bat dago.

## EGITURA

O BLOKEA. Metodologia dala eta

1. BLOKEA. Datu soziodemografikoak

2. BLOKEA. Urigintza

3. BLOKEA. Ekonomia eta enplegua

4. BLOKEA. Udal azpiegiturak eta ekipamentuak


5. BLOKEA. Ondare historiko eta kulturala

6. BLOKEA. Ingurumena

7. BLOKEA. Garraioa

## 1. BLOKEA. DATU SOZIODEMOGRAFIKOAK

Erroldatze urtea




1a taula. Ze auzunetan bizi dira

	Zenbat	%
Loroño	12	%3,91
Basara	12	%3,91
Goikoelexalde	8	%2,61
Gaztelu	10	%3,26
Zubitalde	52	%16,94
Sarrikola	7	%2,28
Berresonaga	17	%5,54
Urigunea	153	%49,84
Beste batzuk	36	%11,73
Guztira	307	<b>100,00</b>

Inkesta erantzun dabenak gazteak dira edo denpora gitxi samar daroe **herrian biziten**, izan be, %42 1991tik aurrera erroldatu dira herrian.

Herritarren %50 inguru urigunean bizi dira; gero, Zubitalde auzunean bizi da jente gehien (%17) eta, ondoren, aldenduago dagozan beste auzune batzuetan (%12), esate baterako, Goikolan, Erkinkon...


## 1. BLOKEA. DATU SOZIODEMOGRAFIKOAK




Ikusten danez, herritarrak **nahiko modu homogeneoan** dagoz banatuta gizon eta emakumeen artean (emakumeak, %50,2; eta gizonak, %49,8)

**Edadeka**, lau edade-tarteak modu oso antzekoan ordezkaturik dagoz. Batez be, 2 edade-tarte nabarmentzen dira, eta porzentaje berean ia-ia: gazteen edade-tartea, 18 eta 35 urte bitartekoena (%28) eta 46 eta 65 urte artean daukienen tartea (%27).

## 1. BLOKEA. DATU SOZIODEMOGRAFIKOAK



■ Lizentziatura  
■ Batxilergoa  
■ Oinarrizko ikasketak  
■ Ed/Ee  
■ Diplomatura  
■ Lanbide ikasketak  
■ Ikasketa bakoa




■ Ikaslea  
■ Lanbakoa, lana topetan  
■ Jubiladua  
■ Ed/Ee  
■ Beharrean  
■ Lanbakoa, ez dabil lana topetan  
■ Ettxekoandrea

Inkesta egin daben herritarren **ikasketa-mailari jagokonez**, emaitzak nahiko heterogeneoak dira. Holan, ba, %24k oinarrizko ikasketak ditu, eta %34k, barriz, goi mailako ikasketak (lizentziaturak eta diplomaturak). Inkesta egin dabenen %8k ez dauka ikasketarik.

**Lan egoereari jagokonez**, %58k lana daukie eta %21 jubilauta dagoz.

## 1. BLOKEA. DATU SOZIODEMOGRAFIKOAK


Zein sektoretan behar egiten daben



Lehenengo sektorea  
Zerbitzuen sektorea

Bigarren sektorea  
Sektore publikoa

Herrian behar egiten daben





Herrian

Herritik kanpora

Beharrean egon eta inkestari erantzun deusien gehienak **zerbitzuen sektorean** behar egiten dabe (%39), eta gehienek **herritik kanpora** (%78).

Gainera, **sektore publikoan** behar egiten dabenek talde handi samarra osotzen dabe (%35). Labrantza eta nekazaritzari lotutako tradizioa daukan herria izan arren, herritarren %1ek baino ez dau lehenengo sektoreagaz lotutako jardueretan behar egiten.


## 1. BLOKEA. DATU SOZIODEMOGRAFIKOAK




Inkesta erantzun daberen herritarren erditik gora euskaldunak dira (%62) eta euskera %52ren ama-hizkuntza da.

**Egoera zibila** dala eta, erdia baino gehiago ezkonduta dagoz (%52) eta %26 ezkonga.

## 1. BLOKEA. DATU SOZIODEMOGRAFIKOAK



1a taula. Seme-alaba kopurua		
	Sarritasuna	Porzentajea
Bat	73	%34,43
Bi	96	%45,28
Hiru	20	%9,43
Lau	12	%5,66
Bost	1	%0,47
Sei	1	%0,47
Zazpi	1	%0,47
Ed/Ee	8	%3,77
<b>Guztira</b>	<b>212</b>	<b>100,00</b>



Eretxia emon dabenen artean, %67k familia daukie; gehienak **seme-alaba 2** (%45).

**Seme-alaben edadeak** kontuan izanda, joera 2 ikusten dira. Batetik, 6 urtetik beherako seme-alabak dagoz (%22), hau da, bikote gazteen seme-alabak.

Bestetik, 36 eta 45 urte bitartekoak dagoz (%17), eta horrek argi eta garbi erakusten dau inkestari erantzun deutsien artean 65 urtetik gorakoek garrantzi handia daukiela, izan be, %22 dira.

## 1. BLOKEA. DATU SOZIODEMOGRAFIKOAK

### ONDORIOAK

**Oinarrizko alderdi soziodemografiko horreek** kontuan izanda, hona hemen inkestari erantzun deutsien herritarren ezaugarriak:

- Nahiko denpora gitxi daroe Larrabetzun biziten, eta batez be urigunean bizi dira.
- Edade-tarte guztiak ordezkatura dagoz laginean, eta gazteen edade-tartea (18tik 35era) nabarmentzen da apur bat.
- Erdiak baino gehiagok daukiez oinarriko edo goi mailako ikasketak amaituta eta %58 beharren dagoz. Beharrea dagozan herritarren %74 baino gehiago sektore publikoan eta zerbitzuen sektorean dagoz, eta gehienak Larrabetzutik kanpora.
- Inkestari erantzun deutsien erdia baino apur bat gehiagoren ama hizkuntza euskerea da eta hamarretik seik ondo daki.
- Egoera zibilarri jagokonez, hainbat egoera dagoz (izatezko bikoteak, alkarregaz bizi diran bikoteak, alargunak eta ezkongak), baina gehienak ezkondua dagoz. Errealidade horrek azken aldian familien tipologietan egon diran aldaketak erakusten ditu.
- Halanda be, inkestari erantzun deutsien herritarren bi heren baino gehiagok seme-alabak ditu, batez be edade-tarte bitakoak: 6 urtetik beherakoak eta 36 eta 45 urte bitartekoak.

## EGITURA

0 BLOKEA. Metodologia dala eta

1. BLOKEA. Datu soziodemografikoak

2. BLOKEA. Urigintza

3. BLOKEA. Ekonomia eta enplegua

4. BLOKEA. Udal azpiegiturak eta ekipamentuak


5. BLOKEA. Ondare historiko eta kulturala

6. BLOKEA. Ingurumena

7. BLOKEA. Garraioa

## 2. BLOKEA. URIGINTZA

Zertarako erabili beharko litzatekez datozen urteotan egingo diran etxeak?




Larrabetzuko bizilagunen guraria da etxebizitza barriek gaur egungo bizilagun-kopuruari eusteko balio daiela; hori dinoe inkestari erantzun deusien %58k.

**Edadeka eta sexuka**, joera bera ikusten da talde guztietan, 65 urtetik gorakoen edade-tartean izan ezik, izan be, bitxia izan arren, edade-tarte horretako andra (%63) zein gizonen (%68) eretxian, etxebizitzak Larrabetzuko bizilagunen kopuruak gora egin daian eregi beharko litzatekez.

2. Taula. Zertarako erabili beharko litzatekez datozen urteotan egingo diran etxeak? Edadeka eta sexuka

	18 - 35				36 - 45				46 - 65				65etik gora				Guztira			
	Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak	
Oraingo herritar kopuruari eusteko	27	%69	31	%72	24	%69	23	%66	27	%66	25	%57	13	%33	10	%32	<b>91</b>	<b>%59</b>	<b>89</b>	<b>%58</b>
Oraingo herritar kopurua handitzeko	12	%31	12	%28	10	%29	12	%34	14	%34	18	%41	25	%64	21	%68	<b>61</b>	<b>%40</b>	<b>63</b>	<b>%41</b>
Ed/Ee	0	%0	0	%0	1	%3	0	%0	0	%0	1	%2	1	%3	0	%0	<b>2</b>	<b>%1</b>	<b>1</b>	<b>%1</b>
<b>Guztira</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>43</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>41</b>	<b>%100</b>	<b>44</b>	<b>%100</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>31</b>	<b>%100</b>	<b>154</b>	<b>%100</b>	<b>153</b>	<b>%100</b>

## 2. BLOKEA. URIGINTZA



Orokorrean... udalerrian 2009an 1.850 lagun inguru dagozala kontuan izanda, herritarren %35en eretxian, 8 urte barru Larrabetzun 150 bizilagun gehiago egon beharko litzatekez, 2.000 bizilagun izateraino. Bestetik, %16k pentsetan dabe herritar kopuruak berbera izan beharko leukela.


Sexuka, andrazkoen %36k eta gizonezkoen %33k pentsetan dabe udalerriko herritar kopuruak 8 urte barru 2.000 bizilagunerainokoa izan beharko leukela. Batez bestekoak igon egiten dau apur bat gazteen edade-tartean, eta, holan, 18 eta 35 urte bitarteko emakumezkoen artean %44koa da, eta 36 eta 45 urte bitarteko gizonezkoen artean, %49koa.

3. taula. Herriko bizilagun kopurua 8 urte barru

	18 - 35		36 - 45		46 - 65		65etik gora		Guztira											
	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak										
Bera	3	%8	8	%19	6	%17	4	%11	7	%17	6	%14	9	%29	22	%14	27	%18		
2000 bizilaguneraino	17	%44	11	%26	13	%37	17	%49	14	%34	16	%36	12	%31	7	%23	56	%36	51	%33
2250eraino	10	%26	14	%33	6	%17	8	%23	13	%32	12	%27	3	%8	2	%6	32	%21	36	%24
2500eraino	5	%13	7	%16	4	%11	4	%11	4	%10	7	%16	8	%21	8	%26	21	%14	26	%17
2750eraino	1	%3	2	%5	2	%6	1	%3	2	%5	2	%5	3	%8	1	%3	8	%5	6	%4
3700eraino	3	%8	1	%2	1	%3	1	%3	0	%0	1	%2	3	%8	2	%6	7	%5	5	%3
Ed/Ee	0	%0	0	%0	3	%9	0	%0	1	%2	0	%0	4	%10	2	%6	8	%5	2	%1
<b>Guztira</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>43</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>41</b>	<b>%100</b>	<b>44</b>	<b>%100</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>31</b>	<b>%100</b>	<b>154</b>	<b>%100</b>	<b>153</b>	<b>%100</b>


## 2. BLOKEA. URIGINTZA

Ze etxebizitza mueta dan gurago



- Etxebizitza konzentrauak (pisuak)
- Etxebizitza sakabanatuak (txaletak)
- Ed/Ee

Ze etxebizitza babestu mueta bultzatu beharko litzateken



- Ofiziala (VPO)
- Tasatua
- Ed/Ee

Orokorrean... inkestari erantzun deutsien %65ek gurago dau pisuak egin daitezkan bizimodu bakarrekotxeak edo txaletak baino. Gainera, babes ofizialeko etxebizitzak bultzatu beharko litzatekezen gehien herritarren %69ren eretzian.


Edade eta sexuka, 36 eta 45 urte bitarteko gizonen %80k gurago ditue etxebizitza ofizialak; emakumezkoen artean, barriz, %63koa da proportzioa.

4. taula. Ze etxebizitza babestu mueta bultzatu beharko litzateken

	18 - 35				36 - 45				46 - 65				65etik gora				Guztira			
	Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak	
Ofiziala (VPO)	30	%77	31	%72	22	%63	28	%80	29	%71	24	%55	29	%74	18	%58	110	%71	101	%66
Tasatua	6	%15	9	%21	8	%23	3	%9	6	%15	12	%27	1	%3	5	%16	21	%14	29	%19
Ed/Ee	3	%8	3	%7	5	%14	4	%11	6	%15	8	%18	9	%23	8	%26	23	%15	23	%15
<b>Guztira</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>43</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>41</b>	<b>%100</b>	<b>44</b>	<b>%100</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>31</b>	<b>%100</b>	<b>154</b>	<b>%100</b>	<b>153</b>	<b>%100</b>


## 2. BLOKEA. URIGINTZA

Etxeen gehieneko altuerea



- Familia bakarreko etxebizitzak
- 1 eta 3 solairu arteko etxebizitzak
- 4 eta 5 solairu arteko etxebizitzak
- Ez da etxe gehiago egin behar urigunean

Zelangoa dozu gurago izatea etxebizitza babestua?



- Erostekoa
- Errentakoa
- Ed/Ee

Zure eretxian, herriaren kanpokaldean zein izan beharko litzateke etxeen gehieneko altuerea? itauna eginda, gehienek erantzun dabe (%76) ez leukiela altuegiak izan behar, gehienez 3 pisukoak.

Herritarren %46k gurago ditu erosteko etxebizitza babestua, eta %36k, barriz, alokairukoak.


**Edade eta sexuka**, gizonak gurago dabe alokairuaren aukerea edade guztietan. Andrazkoek, gazteenek batez be, 18 eta 35 urte bitartekoek, gurago dabe erosteko aukerea (%54k); edade-tarte horretan, gizonzkoen %35ek egiten dabe aukera hori.

5. taula. Zelangoa dozu gurago izatea etxebizitza babestua? Edade eta sexuka

	18 - 35		36 - 45		46 - 65		65etik gora		Guztira											
	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak										
Erostekoa	21	%54	15	%35	15	%43	11	%31	18	%44	22	%50	23	%59	17	%55	<b>77</b>	<b>%50</b>	<b>65</b>	<b>%42</b>
Errentakoa	12	%31	22	%51	12	%34	19	%54	15	%37	19	%43	5	%13	6	%19	<b>44</b>	<b>%29</b>	<b>66</b>	<b>%43</b>
Ed/Ee	6	%15	6	%14	8	%23	5	%14	8	%20	3	%7	11	%28	8	%26	<b>33</b>	<b>%21</b>	<b>22</b>	<b>%14</b>
<b>Guztira</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>43</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>41</b>	<b>%100</b>	<b>44</b>	<b>%100</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>31</b>	<b>%100</b>	<b>154</b>	<b>%100</b>	<b>153</b>	<b>%100</b>

## 2. BLOKEA. URIGINTZA

Egingo diran etxebizitza barrien batez besteko azalera erabilgarria



**Orokorrean**, inkestari erantzun deutsien gehienek udalerrian egingo diran etxebizitza barrien batez besteko azalera erabilgarria 80 eta 90 m<sup>2</sup>-koa izatea gura dabe; hori adierazo dabe %58k. Nabarmentzekoa da herritarren %10ek etxe handiak gura izatea (95 eta 100 m<sup>2</sup> artekoak).


**Edade eta sexuka**, aitatzekoa da andrazkoen porzentaje handi batek ez deusala itaunari erantzun (%12k), nahiz eta gehienek 80 eta 90m<sup>2</sup>-ko aukerearen alde egiten daben. Gizonezkoen artean be hori da aukera nagusia (%64), batez be, 35 urtetik beherako gazteen artean.

6. taula. Egingo diran etxebizitza barrien batez besteko azalera erabilgarria. Edade eta sexuka

	18 - 35				36 - 45				46 - 65				65etik gora				Guztira			
	Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak	
60 m2 arte	2	%5	0	%0	1	%3	1	%3	1	%2	0	%0	1	%3	2	%6	5	%3	3	%2
70 - 75	11	%28	6	%14	3	%9	5	%14	3	%7	7	%16	11	%28	8	%26	28	%18	26	%17
80 - 90	17	%44	31	%72	23	%66	23	%66	28	%68	26	%59	15	%38	16	%52	83	%54	96	%63
95 - 100	0	%0	3	%7	4	%11	4	%11	5	%12	8	%18	5	%13	1	%3	14	%9	16	%10
110 - 150	0	%0	1	%2	0	%0	0	%0	0	%0	1	%2	0	%0	2	%6	0	%0	4	%3
200 - 300	2	%5	0	%0	1	%3	0	%0	0	%0	0	%0	2	%5	0	%0	5	%3	0	%0
Ed/Ee	7	%18	2	%5	3	%9	2	%6	4	%10	2	%5	5	%13	2	%6	19	%12	8	%5
Guztira	39	%100	43	%100	35	%100	35	%100	41	%100	44	%100	39	%100	31	%100	154	%100	153	%100

## 2. BLOKEA. URIGINTZA

Udalak aparteko beste zergaren batez kargau beharko leukez hutsik dagozan etxebizitzak?



Hutsik dagozan etxeen jaubeei aparteko zerga bat kobrotea begi onez ikusten dau herritarren %60,3k.


**Sexua eta edadea kontuan hartuta,** gizonezko gazteek ikusten dabe ondoen ekimen hori, batez be, 36 eta 45 urte bitarterkoek (%89); emakumezkoen artean, %57k ikusten dabe ondo neurri hori.

7. taula. Udalak aparteko beste zergaren batez kargau beharko leukez hutsik dagozan etxebizitzak? Edade eta sexuka


	18 - 35		36 - 45		46 - 65		65etik gora		Guztira											
	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak										
Bai	27	%69	30	%70	20	%57	31	%89	20	%49	26	%59	16	%41	15	%48	<b>83</b>	<b>%54</b>	<b>102</b>	<b>%67</b>
Ez	11	%28	13	%30	13	%37	4	%11	18	%44	16	%36	18	%46	14	%45	<b>60</b>	<b>%39</b>	<b>47</b>	<b>%31</b>
Ed/Ee	1	%3	0	%0	2	%6	0	%0	3	%7	2	%5	5	%13	2	%6	<b>11</b>	<b>%7</b>	<b>4</b>	<b>%3</b>
<b>Guztira</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>43</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>41</b>	<b>%100</b>	<b>44</b>	<b>%100</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>31</b>	<b>%100</b>	<b>154</b>	<b>%100</b>	<b>153</b>	<b>%100</b>

## 2. BLOKEA. URIGINTZA

Urigunean egindako etxe barriak dirala-eta jenteak zer gura dauan



Begi onez ikusten dozu etxabe komertzialak etxebizitza lez kalifikatea?



**Orokorrean**, herritarren %60k pentsetan dau herrian eregitako etxe barriek etxabe komertzialak eta biziteko moduko beheko solairuak izan beharko leukiezala. Gainera, etxabe komertzial horreek etxebizitza lez erabilteari ondo eristen deutso %78k.

Halanda ze, etxe barri horreen lurzorua aprobetxetako estrategia bi horreen artean, etxebizitzetarako erabiltea da neurririk onartuena.


**Edade eta sexuaren arabera**, modu desbardinean baloretan da etxabeak etxebizitza lez erabilteko aukerea. Gehienak neurri horregaz bat datozen arren, onarpena ez da hain zabala 35 urtetik beherako andrazko eta gizonezkoen artean.

8. taula. Begi onez ikusten dozu etxabe komertzialak etxebizitza lez kalifikatea? Edade eta sexuka

	18 - 35				36 - 45				46 - 65				65etik gora				Guztira			
	Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak	
Bai	30	%77	29	%67	29	%83	31	%89	35	%85	33	%75	31	%79	23	%74	125	%81	116	%76
Ez	6	%15	13	%30	4	%11	2	%6	5	%12	9	%20	5	%13	7	%23	20	%13	31	%20
Ed/Ee	3	%8	1	%2	2	%6	2	%6	1	%2	2	%5	3	%8	1	%3	9	%6	6	%4
<b>Guztira</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>43</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>41</b>	<b>%100</b>	<b>44</b>	<b>%100</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>31</b>	<b>%100</b>	<b>154</b>	<b>%100</b>	<b>153</b>	<b>%100</b>


## 2. BLOKEA. URIGINTZA

Plan Nagusi barrian iraunkortasun erispideak sartzearen alde zagoz?



- Bai, horrek hasiera baten, kostu ekonomiko handiagoa ekarri arren
- Ez, horrek kostu ekologiko handiagoa izan arren
- Ed/Ee

Oinezkoentzako eremu gehiago ipintearen alde zagoz?



- Bai, ibilgailuek beste erabilera batzuk eragotzen dituelako
- Ez, horrek aparkaleku gitxiago eukitea dakarrelako
- Ed/Ee

Herritar ia guztiak (%93) ondo ikusten dabe Plan Nagusi barrian iraunkortasun erispideak sartzea (lurzorua, ura eta energia aurrezte; kutsatzen ez daben energiak erabiltea...) eta gehienak (%68) oinezkoentzako eremu gehiago ipintearen alde dagoz, ibilgailuek eragotzi egiten ditue-eta beste erabilera batzuk.


**Edade eta sexuka**, udalerriko kaleak oinezkoentzako kale bihurtzeko ekimena batez be 65 urtetik beherako gizonetako eta 65 urtetik gorako andrazkoek onartzen dabe.

9. taula. Oinezkoentzako eremu gehiago ipintearen alde zagoz? Edade eta sexuka

	18 - 35		36 - 45		46 - 65		65etik gora		Guztira											
	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak										
Bai, ibilgailuek beste erabilera batzuk eragotzen dituelako	32	%82	37	%86	24	%69	29	%83	24	%59	32	%73	20	%51	12	%39	100	%65	110	%72
Ez, horrek aparkaleku gitxiago eukitea dakarrelako	7	%18	6	%14	9	%26	5	%14	13	%32	9	%20	17	%44	14	%45	46	%30	34	%22
Ed/Ee	0	%0	0	%0	2	%6	1	%3	4	%10	3	%7	2	%5	5	%16	8	%5	9	%6
<b>Guztira</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>43</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>41</b>	<b>%100</b>	<b>44</b>	<b>%100</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>31</b>	<b>%100</b>	<b>154</b>	<b>%100</b>	<b>153</b>	<b>%100</b>

## 2. BLOKEA. URIGINTZA

Erabilgarri dagoan lurzoruari ze erabilera emon lekion



Orokorrean, Larrabetzun erabilgarri dagoan lurzoruari emon lekion erabilerearen gainean 3 aukera aitatu dira batez be: berdeguneak (%26), aparkalekuak (%22) eta oinezkoentzako eremuak egitea (%15). "Beste erabilera batzuetarako" erantzuna erantzun guztien %4,9 da. Talde horretan, honek dira aukerarik aitatuena: nekazaritza eta abelazkuntza, etxebizitzak eta kultur edo kirol ekipamentuak.

Sexu eta edadeka, oinezkoentzako eremuak egitea batez be gizonetako aitatuena dabe, eta gizonen artean, gazteenek. Andrazkoek, barriz, gizonetako baino apur bat gehiagotan aitatuena dabe lurzorua berdeguneetarako erabilteko aukerea.


Ikusten denez, uriko kale egituraren hobekuntza da inkestari erantzun deutesien herritarren lehentasunetarikoa bat, aparkalekuak eginez edo oinezkoentzako kaleak eginez.

10. taula. Erabilgarri dagoan lurzoruari ze erabilera emon lekion. Edade eta sexuka

	18 - 35		36 - 45		46 - 65		65etik gora		Guztira											
	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak										
Aparkalekuetarako	10	%13	15	%17	15	%21	14	%20	20	%24	16	%18	23	%29	20	%32	<b>68</b>	<b>%22</b>	<b>65</b>	<b>%21</b>
Berdeguneetarako	26	%33	25	%29	20	%29	17	%24	21	%26	22	%25	18	%23	13	%21	<b>85</b>	<b>%28</b>	<b>77</b>	<b>%25</b>
Etxebizitzetarako	7	%9	6	%7	6	%9	11	%16	10	%12	14	%16	13	%17	5	%8	<b>36</b>	<b>%12</b>	<b>36</b>	<b>%12</b>
Oinezkoentzako bideak egiteko	15	%19	21	%24	14	%20	13	%19	6	%7	11	%13	7	%9	4	%6	<b>42</b>	<b>%14</b>	<b>49</b>	<b>%16</b>
Komunikazioak hobetzeko	12	%15	3	%3	9	%13	2	%3	14	%17	8	%9	3	%4	5	%8	<b>38</b>	<b>%12</b>	<b>18</b>	<b>%6</b>
Herrira enpresak ekarteko	6	%8	9	%10	1	%1	10	%14	7	%9	10	%11	11	%14	13	%21	<b>25</b>	<b>%8</b>	<b>42</b>	<b>%14</b>
Beste erabilera batzuetarako	2	%3	6	%7	4	%6	3	%4	3	%4	7	%8	3	%4	2	%3	<b>12</b>	<b>%4</b>	<b>18</b>	<b>%6</b>
Ed/Ee	0	%0	1	%1	1	%1	0	%0	1	%1	0	%0	0	%0	0	%0	<b>2</b>	<b>%1</b>	<b>1</b>	<b>%0</b>
<b>Guztira</b>	<b>78</b>	<b>%100</b>	<b>86</b>	<b>%100</b>	<b>70</b>	<b>%100</b>	<b>70</b>	<b>%100</b>	<b>82</b>	<b>%100</b>	<b>88</b>	<b>%100</b>	<b>78</b>	<b>%100</b>	<b>62</b>	<b>%100</b>	<b>308</b>	<b>%100</b>	<b>306</b>	<b>%100</b>

## 2. BLOKEA. URIGINTZA

### Sarrikola poligonoak herrian daukan eragina



**Orokorrean**, herritarren %41ek pentsetan dau Sarrikola poligonoa ona dala herriarentzat. Gainera, beste %27ren eretzian, poligonoak ez dauka aparteko eraginik.

**Edade eta sexuka**, batez be 65 urtetik gorako andrazkoek (%70) dinoe poligonoa ona dala, bai eta 36 eta 45 urte bitarteko gizonetzkoek be (%43).


Halanda ze, esan leiteke inkesta egin daberen herritarren artean nahiko ontzat hartzen dala instalazino hori.

12. taula. Sarrikola poligonoak herrian daukan eragina. Edade eta sexuka

	18 - 35		36 - 45		46 - 65		65etik gora		Guztira											
	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak										
Eragin ona dauka	10	%26	18	%42	8	%23	15	%43	18	%44	12	%27	27	%69	18	%58	<b>63</b>	<b>%41</b>	<b>63</b>	<b>%41</b>
Eragin txarra dauka	7	%18	12	%28	15	%43	8	%23	7	%17	16	%36	4	%10	2	%6	<b>33</b>	<b>%21</b>	<b>38</b>	<b>%25</b>
Ez dauka aparteko eraginik	11	%28	12	%28	8	%23	11	%31	12	%29	15	%34	7	%18	8	%26	<b>38</b>	<b>%25</b>	<b>46</b>	<b>%30</b>
Ed/Ee	11	%28	1	%2	4	%11	1	%3	4	%10	1	%2	1	%3	3	%10	<b>20</b>	<b>%13</b>	<b>6</b>	<b>%4</b>
<b>Guztira</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>43</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>41</b>	<b>%100</b>	<b>44</b>	<b>%100</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>31</b>	<b>%100</b>	<b>154</b>	<b>%100</b>	<b>153</b>	<b>%100</b>

## 2. BLOKEA. URIGINTZA

Conauta orain dagoan lekuan itxiko zeunke?



**Orokorrean**, herritarren %20k kendu egingo leuke Conauta herritik, %35ek 5etik beherako notea emoten deutso eta batez besteko notea %4,8 da.

Erantzun ez dabenen proportzioa be nabarmentzekoa da: %17.


**Edade eta sexuka**, 36 eta 45 urte birtarteko andrazkoek, batez beste, 3,7ko puntuazinoa emon dabe, eta 46 eta 65 urte bitarteko gizonzkoek, aldiz, 3,8 emon dabe. Holan, ba, horreekek emon dabe puntuazinarik bajuena, eta, halanda ze, instalazino hori kendu egin beharko litzatekela pentsetan dabe.

13. taula. Conauta orain dagoan lekuan itxiko zeunke? Edade eta sexuka

	18 - 35				36 - 45				46 - 65				65etik gora				Guztira			
	Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak	
1	3	%8	8	%19	9	%26	7	%20	7	%17	16	%36	5	%13	6	%19	24	%16	37	%24
2	1	%3	2	%5	2	%6	3	%9	3	%7	2	%5	1	%3	0	%0	7	%5	7	%5
3	1	%3	1	%2	0	%0	1	%3	3	%7	3	%7	1	%3	2	%6	5	%3	7	%5
4	4	%10	2	%5	3	%9	2	%6	0	%0	0	%0	2	%5	1	%3	9	%6	5	%3
5	6	%15	6	%14	4	%11	4	%11	6	%15	6	%14	7	%18	5	%16	23	%15	21	%14
6	4	%10	4	%9	4	%11	3	%9	8	%20	5	%11	1	%3	1	%3	17	%11	13	%8
7	6	%15	7	%16	3	%9	3	%9	2	%5	3	%7	3	%8	1	%3	14	%9	14	%9
8	2	%5	3	%7	1	%3	4	%11	4	%10	3	%7	10	%26	9	%29	17	%11	19	%12
9	1	%3	1	%2	0	%0	0	%0	0	%0	0	%0	1	%3	1	%3	2	%1	2	%1
10	0	%0	2	%5	0	%0	0	%0	2	%5	2	%5	5	%13	2	%6	7	%5	6	%4
Ed/Ee	11	%28	7	%16	9	%26	8	%23	6	%15	4	%9	3	%8	3	%10	29	%19	22	%14
<b>Guztira</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>43</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>41</b>	<b>%100</b>	<b>44</b>	<b>%100</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>31</b>	<b>%100</b>	<b>154</b>	<b>%100</b>	<b>153</b>	<b>%100</b>
Batez beste	5,18		4,75		3,77		4,26		4,74		3,85		6,08		5,54		5,02		4,60	

## 2. BLOKEA. URIGINTZA

Conauta poligonoak herrian daukan eragina



**Orokorrean,** Conauta poligonoak ez dauka eragin nabarmenik inkestari erantzun deusien herritarren %39rentzat; %22rentzat, aldiz, txarra da, eta %21ek ez daki/ez dau erantzun.

**Edade eta sexuka,** txarra dala pentsetan dabenen artean, nabarmentzekoak dira 46 eta 65 urte bitarteko gizonak (%34).


Azken baten, esan geinke instalazio honek ez daukala aparteko eraginik.

14. taula. Conauta poligonoak herrian daukan eragina. Edade eta sexuka

	18 - 35		36 - 45		46 - 65		65etik gora		Guztira											
	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak										
Eragin ona dauka	5	%13	8	%19	4	%11	4	%9	16	%41	10	%32	<b>28</b>	<b>%18</b>	<b>26</b>	<b>%17</b>				
Eragin txarra dauka	6	%15	4	%9	8	%23	11	%31	9	%22	15	%34	6	%15	8	%26	<b>29</b>	<b>%19</b>	<b>38</b>	<b>%25</b>
Ez dauka aparteko eraginik	11	%28	23	%53	13	%37	10	%29	21	%51	20	%45	13	%33	10	%32	<b>58</b>	<b>%38</b>	<b>63</b>	<b>%41</b>
Ed/Ee	17	%44	8	%19	10	%29	10	%29	8	%20	5	%11	4	%10	3	%10	<b>39</b>	<b>%25</b>	<b>26</b>	<b>%17</b>
<b>Guztira</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>43</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>41</b>	<b>%100</b>	<b>44</b>	<b>%100</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>31</b>	<b>%100</b>	<b>154</b>	<b>%100</b>	<b>153</b>	<b>%100</b>

## 2. BLOKEA. URIGINTZA

Zerratokia orain dagoan lekuan itxiko zeunke?



Zerratokiak edo puntuazino sano handiak edo sano txikiak izan ditu. Izan be, %34k kendu egingo leukie (4 puntu baino gitxiago emoten deutsie), eta %36k, ostera, 8 puntutik gora emon deutsie, eta, halanda ze, dagoan lekuan itxiko leukie.

Holan dala, **5,70** puntu hartzen ditu batez beste.


**Edade eta sexuka**, andrazkoak dira ondoen onartzen dabenak instalazino hau, 65 urtetik gorako andrazkoen artean batez bestekoa 7,5ekoa da-eta; andrazko gazteen artean be, 18 eta 35 urte bitartekoen artean, batez bestekoa 7 da.

15. taula. Zerratokia orain dagoan lekuan itxiko zeunke? Edade eta sexuka

	18 - 35				36 - 45				46 - 65				65etik gora				Guztira			
	Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak	
1	1	%3	11	%26	9	%26	6	%17	9	%22	13	%30	2	%5	4	%13	21	%14	34	%22
2	2	%5	0	%0	2	%6	4	%11	0	%0	4	%9	1	%3	1	%3	5	%3	9	%6
3	2	%5	0	%0	4	%11	2	%6	2	%5	2	%5	1	%3	4	%13	9	%6	8	%5
4	4	%10	4	%9	0	%0	3	%9	1	%2	1	%2	2	%5	0	%0	7	%5	8	%5
5	1	%3	5	%12	5	%14	3	%9	8	%20	6	%14	2	%5	1	%3	16	%10	15	%10
6	2	%5	4	%9	6	%17	4	%11	5	%12	2	%5	3	%8	1	%3	16	%10	11	%7
7	6	%15	7	%16	4	%11	4	%11	4	%10	1	%2	3	%8	2	%6	17	%11	14	%9
8	11	%28	8	%19	2	%6	5	%14	6	%15	7	%16	9	%23	8	%26	28	%18	28	%18
9	2	%5	0	%0	0	%0	0	%0	0	%0	2	%5	4	%10	2	%6	6	%4	4	%3
10	7	%18	3	%7	3	%9	4	%11	4	%10	5	%11	12	%31	7	%23	26	%17	19	%12
Ed/Ee	1	%3	1	%2	0	%0	0	%0	2	%5	1	%2	0	%0	1	%3	3	%2	3	%2
<b>Guztira</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>43</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>41</b>	<b>%100</b>	<b>44</b>	<b>%100</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>31</b>	<b>%100</b>	<b>154</b>	<b>%100</b>	<b>153</b>	<b>%100</b>
<b>Batez beste</b>	<b>6,89</b>		<b>4,95</b>		<b>4,57</b>		<b>5,11</b>		<b>5,26</b>		<b>4,74</b>		<b>7,49</b>		<b>6,50</b>		<b>6,09</b>		<b>5,31</b>	

## 2. BLOKEA. URIGINTZA

Zerratokiak herrian daukan eragina



Aurreko datuen haritik, konfirmata dago zerratokia begi onez ikusten dala herrian, %44rentzat eragin ona dauka-eta.


**Edade eta sexuka**, kasu honetan be, 65 urtetik gorako andrazkoen eretxian Zerratokia onuragarria da herriarentzat, bai eta gizonezko gazteen (18 eta 35 urte bitartekoak) %56rentzat be.

16. taula. Zerratokiak herrian daukan eragina. Edade eta sexuka

	18 - 35				36 - 45				46 - 65				65etik gora				Guztira			
	Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak	
Eragin ona dauka	16	%41	24	%56	11	%31	11	%31	19	%46	14	%32	24	%62	16	%52	<b>70</b>	<b>%45</b>	<b>65</b>	<b>%42</b>
Eragin txarra dauka	5	%13	4	%9	7	%20	10	%29	10	%24	12	%27	4	%10	7	%23	<b>26</b>	<b>%17</b>	<b>33</b>	<b>%22</b>
Ez dauka aparteko eraginik	13	%33	14	%33	14	%40	13	%37	10	%24	18	%41	9	%23	6	%19	<b>46</b>	<b>%30</b>	<b>51</b>	<b>%33</b>
Ed/Ee	5	%13	1	%2	3	%9	1	%3	2	%5	0	%0	2	%5	2	%6	<b>12</b>	<b>%8</b>	<b>4</b>	<b>%3</b>
<b>Guztira</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>43</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>41</b>	<b>%100</b>	<b>44</b>	<b>%100</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>31</b>	<b>%100</b>	<b>154</b>	<b>%100</b>	<b>153</b>	<b>%100</b>

## 2. BLOKEA. URIGINTZA

Terrazos Vascos orain dagoan lekuan itxiko zeunke?



Atal honetan ez daki/ez dau erantzuten aukerak porzentaje handia daukan arren (%31), batez besteko balorazinoa 5,6koa da.

**Orokorrean**, herritarren ia erdiak (%49) Terrazos Vascos dagoan lekuan itxiko leuke.


**Edade eta sexuka**, oraingoan be 65 urtetik gorakoek emoten dabe puntuazinarik handiena: gizonetzkoek 7,3 eta emakumezkoek 6,9.

17. taula. Terrazos Vascos orain dagoan lekuan itxiko zeunke? Edade eta sexuka

	18 - 35				36 - 45				46 - 65				65etik gora				Guztira				
	Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		
1	1	%3	6	%14	3	%9	6	%17	6	%15	12	%27	4	%10	1	%3	14	%9	25	%16	
2	0	%0	0	%0	2	%6	1	%3	1	%2	1	%2	1	%3	0	%0	4	%3	2	%1	
3	2	%5	1	%2	0	%0	1	%3	1	%2	3	%7	0	%0	1	%3	3	%2	6	%4	
4	2	%5	1	%2	0	%0	2	%6	2	%5	3	%7	1	%3	0	%0	5	%3	6	%4	
5	1	%3	4	%9	6	%17	6	%17	6	%15	3	%7	1	%3	4	%13	14	%9	17	%11	
6	3	%8	6	%14	4	%11	1	%3	1	%2	5	%11	3	%8	4	%13	11	%7	16	%10	
7	1	%3	3	%7	7	%20	0	%0	3	%7	0	%0	2	%5	1	%3	13	%8	4	%3	
8	4	%10	4	%9	0	%0	5	%14	5	%12	4	%9	12	%31	10	%32	21	%14	23	%15	
9	0	%0	0	%0	0	%0	2	%6	1	%2	0	%0	1	%3	1	%3	2	%1	3	%2	
10	1	%3	4	%9	1	%3	0	%0	2	%5	4	%9	6	%15	6	%19	10	%6	14	%9	
Ed/Ee	24	%62	14	%33	12	%34	11	%31	13	%32	9	%20	8	%21	3	%10	57	%37	37	%24	
<b>Guztira</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>43</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>41</b>	<b>%100</b>	<b>44</b>	<b>%100</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>31</b>	<b>%100</b>	<b>154</b>	<b>%100</b>	<b>153</b>	<b>%100</b>	
Batez beste	5,80		5,38		5,22		4,71		5,18		4,34		6,84		7,29		5,81		5,44		5,61

## 2. BLOKEA. URIGINTZA

Terrazos Vascos enpresak herrian daukan eragina



Instalazio honek herrian daukan eragina dala eta, **orokorrean**, ez dauka eragin nabarmenik %35entzat, eta %15entzat, barriz, ona da.


**Edadea eta sexua kontuan hartuta**, aintzat hartzekoa da andrazkoen artean ez daki/ez dau erantzuten aukerea sano zabaldua dagoala (%44k ez dau erantzun); 46 eta 65 urte bitarteko gizonentzat eragin txarra dauka.

18. taula. Terrazos Vascos enpresak herrian daukan eragina. Edade eta sexuka

	18 - 35		36 - 45		46 - 65		65etik gora		Guztira											
	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak										
Eragin ona dauka	2	%5	5	%12	4	%11	2	%6	5	%12	4	%9	9	%23	9	%29	20	%13	20	%13
Eragin txarra dauka	3	%8	5	%12	4	%11	10	%29	6	%15	13	%30	3	%8	4	%13	16	%10	32	%21
Ez dauka aparteko eraginik	6	%15	18	%42	13	%37	10	%29	13	%32	15	%34	19	%49	14	%45	51	%33	57	%37
Ed/Ee	28	%72	15	%35	14	%40	13	%37	17	%41	12	%27	8	%21	4	%13	67	%44	44	%29
<b>Guztira</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>43</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>41</b>	<b>%100</b>	<b>44</b>	<b>%100</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>31</b>	<b>%100</b>	<b>154</b>	<b>%100</b>	<b>153</b>	<b>%100</b>

## 2. BLOKEA. URIGINTZA

Itxiko zeunke Conten (hondakindegia) herrian?



Conten hondakindegia txartoen balorautako instalazio industrialak da, %58ren eretxian dagoan lekutik kendu egin beharko litzateke eta.

Izan be, batez besteko puntuaziorik txikiena lortu dauan instalazioa da: **2,88**.


**Sexu eta edadeka** emon diran puntuazinoei begiratuta, 18 eta 35 urte bitarteko gizonetakoek 1,45eko puntuazioa emon deutesie, eta 36 eta 45 urte bitarteko andrazkoek, barriz, puntu 2; holan, ba, horreek ikusten dabe txartoen udal hondakindegia dagoan lekuan ixtea.

19. taula. Itxiko zeunke Conten (hondakindegia) herrian? Edade eta sexuka

	18 - 35		36 - 45		46 - 65		65etik gora		Guztira											
	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak										
1	22	%56	29	%67	23	%66	18	%51	25	%61	32	%73	18	%46	12	%39	88	%57	91	%59
2	0	%0	2	%5	3	%9	1	%3	0	%0	1	%2	0	%0	0	%0	3	%2	4	%3
3	3	%8	0	%0	1	%3	0	%0	3	%7	0	%0	0	%0	1	%3	7	%5	1	%1
4	1	%3	0	%0	0	%0	1	%3	1	%2	1	%2	0	%0	1	%3	2	%1	3	%2
5	0	%0	1	%2	0	%0	3	%9	4	%10	4	%9	2	%5	2	%6	6	%4	10	%7
6	2	%5	3	%7	1	%3	0	%0	2	%5	3	%7	4	%10	2	%6	9	%6	8	%5
7	2	%5	0	%0	2	%6	4	%11	0	%0	1	%2	3	%8	4	%13	7	%5	9	%6
8	1	%3	1	%2	0	%0	3	%9	2	%5	1	%2	2	%5	3	%10	5	%3	8	%5
9	0	%0	0	%0	0	%0	0	%0	0	%0	0	%0	1	%3	2	%6	1	%1	2	%1
10	1	%3	2	%5	1	%3	1	%3	2	%5	0	%0	5	%13	2	%6	9	%6	5	%3
Ed/Ee	7	%18	5	%12	4	%11	4	%11	2	%5	1	%2	4	%10	2	%6	17	%11	12	%8
<b>Guztira</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>43</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>41</b>	<b>%100</b>	<b>44</b>	<b>%100</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>31</b>	<b>%100</b>	<b>154</b>	<b>%100</b>	<b>153</b>	<b>%100</b>
Batez beste	2,47		1,45		2,00		3,26		2,72		2,12		4,23		4,52		2,88		2,89	

## 2. BLOKEA. URIGINTZA

Conten hondakindegia herrian daukan eragina




Conten hondakindegia daukan eragina kontuan izanda eta aurreko eretxiekin bat etorrita, herritarren %64rentzat hondakindegia hori txarra da.

**Edade eta sexuka**, 36 eta 45 urte bitarteko andrazkoen %77k eta 46 eta 65 urte bitarteko gizonezkoen %73k pentsetan dabe eragin txarra daukala.

20. taula. Conten hondakindegia herrian daukan eragina. Edade eta sexuka

	18 - 35				36 - 45				46 - 65				65etik gora				Guztira			
	Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak	
Eragin ona dauka	1	%3	3	%7	1	%3	2	%6	1	%2	2	%5	7	%18	5	%16	10	%6	12	%8
Eragin txarra dauka	27	%69	28	%65	27	%77	22	%63	28	%68	32	%73	17	%44	14	%45	99	%64	96	%63
Ez dauka aparteko eraginik	3	%8	7	%16	3	%9	7	%20	6	%15	8	%18	9	%23	6	%19	21	%14	28	%18
Ed/Ee	8	%21	5	%12	4	%11	4	%11	6	%15	2	%5	6	%15	6	%19	24	%16	17	%11
<b>Guztira</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>43</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>41</b>	<b>%100</b>	<b>44</b>	<b>%100</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>31</b>	<b>%100</b>	<b>154</b>	<b>%100</b>	<b>153</b>	<b>%100</b>

## 2. BLOKEA. URIGINTZA



Bloke honi amaierera emoteko, herriko instalazino industrial bakotxari emondako puntuazinoen batez besteko orokorrak kontuan hartuta, Orik 10era bitarteko eskalan, Conten da txartoen balorautako instalazinoa, 2,8 puntugaz, eta, gero, Conauta, 4,8 puntugaz.

Bestetik, aprobauaren gainerik dagozn Zerratokia, 5,7gaz eta Terrazos Vascos 5,6gaz; horreek dira ondoen balorautako instalazinoak.

## 2. BLOKEA. URIGINTZA

Inkestaren azterketa kuantitatiboaz gainera, herritarrek modu kualitatiboan be emon ahal izan dabe euren eretxia (ez da estadistiketan ageri). Hainbat modu izan dabe hori egiteko, esate baterako, galdetegian horretarako berenberegi prestatutako espazioetan, **blogean, herritarren gutunontzietan**, etab.

Honeek dira Larrabetzuko herritarrek urigintzaren arloan egindako eskaera nagusiak:

- **Industria guztia kanpokaldera eroatea**, hain zuzen be, Sarrikola poligonora, edo Delicass inguruan beste poligono bat egitea. Beharlekuak ematen dituan industria garbiari bakarrik eustea, eta gaueko zaratakaz kontu eukitea.
- **Conten dala eta**, itxita eukitea, eta lekuari lehen eukan itxurea emotea. Udalak esku hartzea eskatu da, ardurak argitzeko.
- **Conauta dala eta**, beste leku batera eroatea. Eraikina barriztau eta udalaren erabileretarako (kultur ekintzak, etab.) edo udal etxebizitza babestuetarako prestetea.
- **Terrazos vascos**; eraikinaren itxurea hobetzen behartzea eta eragiten dauan hautsa kentzea. Ezin bada, kanpokaldera eroatea proposatu da.
- **Zerratokia**; eretxi desbardinak dagoz; batzuek pentsetan dabe dagoan lekuan itxi behar dala, barriztauta, eta beste batzuek, ostera, ez dala kendu behar pentsau arren, beste leku batera eroango leukie.
- **Etxebizitzak dirala eta**, gehienen eretxian altuera txikikoak izan behar dabe, dagozanen antzekoak, errazoizko prezioan (VPO edo VPL). Etxebizitzak apurka-apurka gehiagotu behar dira, ez bat-batean, eta herria egiten daben eraikinak egin behar dira, ez txaleten espazio itxiak, eta etxeak urigunean ez eze, beste inguru batzuetan be egin behar dira.
- **Hutsik dagozan baserriak zatitu** ahal izateko aukerea be aitatu da, etxebizitza bi edo gehiago egin ahal izateko eta, holan, barriro be jentea bizi daiten bertan. Etxabe komertzialak dirala eta, eretxi desbardinak dagoz: batzuek pentsetan dabe biziteko modukoak izan leitekezala (persona nagusientzat edo desgaitasunen bat daukientzat), beste batzuentzat, etxabe komertzialetan ez leukie etxebizitzarik egin behar, eta beste batzuek aparkalekuen arazoari urtebidea emoteko bide lez ikusten dabe.
- **Berdeguneak dirala eta**, umeentzako jolas-eremu gehiago ipintea eskatzen dabe, herriko hainbat lekutan, herrian ez dago parkerik eta.
- **Espaloi guztiak konpontzea** be, eta bidegorriak egitea Lezamaraino.
- **Argiak hobetzea** urigunetik auzuneetarako bideetan.
- Azkenik, **aparkalekua** arazoa dala esan da; etxe barri guztiek garajea euki beharko leukie (eta saltzeko be euki beharko leukiez igual). Herriko sarreran aparkaleku handi bat egitea be proposatu da.

## 2. BLOKEA. URIGINTZA

Prozesuan zehar, udalean ordezkaturata dagozan hiru talde politikoakaz be egin zan berba (PNV, ANV eta EB). Hona hemen ondorio nagusiak:

### **Etxebizitza dala eta...**

- Etxebizitza hutsen stocka %20 eta %35 bitartean dago, alderdi politiko bakotxaren kalkuluen arabera.
- Lehenasuna emon behar jako gazteentzako etxebizitza babestuaren alokairuari, ezin dabe-eta etxebizitza librea erosi (askok etxebizitza babestuak be ez). Gaur egun ez dago nahikoa eskaintzarik alokairuko pisuetan.
- Prezio altuko etxebizitza libreek herritik kanpoko jentea erakarri dabe. Herriko batzuek be etxebizitzetan inbertidu dabe, aurrezkiei errentabilidadea aterateko asmoz.
- Hutsik dagozan etxebizitzetzi zerga gehiago ipinteko aukerea aztertzeke orduan be nahiko ados dagoz, modu horretara etxebizitza stocka mobiduteke.

### **Urigintza eredua dala eta...**

- Lurzorua eskuratzeko estrategia bat garatu behar da, herritarrei lurak erosiz. Desjabetzea ez da aukera bat. Berezko partida bat ipini behar da lurzorua erosteko, herritarrakaz negoziata.
- Udalak eskuratu leikezan lur-soberakinak erabiliera publikoko eta interes orokorreke ekipamentu barrietarako erabili beharko lirerateke.
- Garrantzitsutzat joten da ez egitea norbere buruari begira egindako ekintza urbanistikoak, ez daitela bakartzea bultzatu eta, holan, komundadeak herritarrentzat daukan bizimodu proposamena ez daitela apurtu. Bultzatu gura dana da herritar guztiek erabili daiezala ekipamentu eta zerbitzu orokorrak.
- Herriko auzuneen batasuna bultzatu behar da, komunikabideak hobetuz, argiak hobetuz, etab., alkarregaz hartu-emonik ez daukien gune itxiak sortu ez daitezcan.
- Larrabetzu eta inguruko herriak (Lezama, etab.) lotzen dituen eta urigunea kanpokaldeagaz lotzen dituen espaloi eta bidegorriak amaitu behar dira.

## 2. BLOKEA. URIGINTZA

Prozesuan **herriko alkarteakaz** be berba egin zan (TXISPAMENDI GURASO ELKARTEA, GURE ETXEA ELKARTEA, MIKEL ARTETXE TXIRRINDULARI ELKARTEA, URITARRA FUTBOL TALDEA, IZAR ARGIA ABESBATZA, GAZTELUMENDI ABESBATZA eta HORI BAI). Hona hemen ondorio nagusiak:

### **Etxebizitza dala eta...**

- Babespeko pisuak behar dira edadekoentzat, bai eta eguneko zentroa eta zaharren egoitza be.
- Etxebizitza barri eta garesti asko egin dira, eta horrek integretan ez dan kanpoko jente asko ekarri dau (batez be Goikoelexalden)
- Erabili egin beharko litzatekezan etxebizitza huts asko dagoz.
- Alokairua bultzatu behar da.
- Gazteentzako etxebizitza babestuak egin behar dira (eskaria aztertu ondoren).
- Lonjak barriro kalifiketako aukerea planteau da, pisuak egiteko.
- Etxebizitzak Txorierriko batez bestekoa baino merkeagoak izan arren, karuegiak dira herriko jentearentzat.
- Solairu gitxiko etxeak egitea proposatu da –2/3 pisukoak- (Andra Mari ingurukoak baino bajuagoak), baina ez txaletak.
- Eskaintza eta eskaria ez datoz bat, eta herriak beste gauza batzuk behar ditu.

### **Uri-altzariak dirala eta...**

- Dagozan uri-altzariak nahikoa dira.
- Zibuek mantenimentu gehiago behar dabe.
- Bidegorri gehiago egitea proposatu da, baita PR erako bidezidorrak be (oinez ibiltea eta bizikletan ibiltea bultzatzeko).

## 2. BLOKEA. URIGINTZA

Prozesuan, eztabaida-taldeak be egin ziran **herriko agente ekonomikoakaz**. Ez doguz izenak esango, baina hona hemen berauon ezaugarriak: autonomoak, nekazaritza eta abeltzaintzako esplotazioak, herriko merkataritza eta enpresa industrialak. Honeek dira ondorio nagusiak:

### Urigintza eredua dala eta...

- Udaletik etxebizitza barriak eta azpiegiturak egiteko emoten diran jarraibideak beteteko orduan akatsak dagoz.
- Euren eretxian, ez dago behar dan moduko komunikaziorik enpresa-sektoreagaz herriko hazkunde urbanistiko eta ekonomikoa aztertzeke.
- Behar-beharrezkoa da lurra zertan erabiliko dan barriri be planteetea. Eraikuntzaren sektoreak daukan krisia kontuan izanda, euren eretxian, udalak beste erabilera batzuetarako ipini beharko leukez lurrak.
- Larrabetzun eta inguruetan dagozan etxebizitza hutsen, erabilten ez diran lonjen eta etxabeen azterketa egitea proposatu dabe.
- Hazkundera txikia eta orekatua izatea ona izango litzateke udal zerbitzuek hobera egiteko (osasuna, etab.), baina, era berean, herritarren kopuruak gora egin beharra dauka hazkunde ekonomikoa indarbarritzeko.
- Herriko merkatariei laguntzea beharrezkotzat jotzen dabe, herrian bertan konsumoa bultzatzeko. Esaten dabenez, nahikoa lagundu ezik, holango negozio batek iraun ahal izatea sano konplikaua da, eta aukera oso arriskutsua ikuspegi ekonomikotik.
- Larrabetzuko urigunearen gaurko egoerea dala eta, agente ekonomiko honeen eretxian, lehentasunen artean azpimarratzekoa da urigunean zein sarreretan dagozan seinaleak hobetu beharra. Era berean, komenigarritzat jotzen dabe urigunetik beste herri batzuetara urteteko bideetan seinale egokiak ipintea, eta hainbat enpresa hobeto seinaleztatuta egon leitekezala pentsetan dabe (Delicass, Azurmendi eta Hormaondo).
- Beharrezkotzat jotzen dabe hasitako obrak amaitzea, batez be kaleak oinezkoentzako kale bihurtzeko lanak. Gainera, ordu jakin batzuetan, ibilgailuak bide publikoetatik ibiltari mugak ipintea proposatu dabe eta inguru industrialetan aparkalekuak gehitzea, orain gitxi dagoz eta.

## 2. BLOKEA. URIGINTZA

Prozesuan, eztabaida-taldeak egin ziran **gazteakaz** (18-30 urte), **gaztetxoakaz** (14-17 urte) eta **umeakaz** (6-9 urte). Talde horreentzat, honeek dira arlo honetako gairik garrantzitsuenak:

### Urigintza eredua dala eta...

**Gazteek** eta **gaztetxoek** hauxe eskatzen dabe batez be:

- Etxebizitza hutsak zergen bidez kargetea, errezago urten daien merkadura.
- Alokairuko eta babes ofizialeko pisu gehiago ipintea, independizau ahal izateko, eta txalet kopurua gitxitzea.
- Etxabeak atontzea etxebizitzak sortzeko.
- Gitxiegi erabilten diran espazioak udal zerbitzuak sortzeko erabiltea. Gazteentzat honeek daukie lehentasuna: **jantoki komunitarioa, aterpetxea, liburutegia edo edadekoentzako zentroa**. Gaztetxoek, barriz, beharrezkotzat jotzen ditue **ensaiuetarako lokalak** eta **gazteak batzeko lokalak**.
	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak										
Erromesentzako aterpetxea egitea	7	9,%0	6	7,%0	6	8,6%	8	11,4%	11	13,4%	5	5,7%	11	13,8%	6	9,7%	35	%12	25	%8
Zubitalde-Eleixosten parke bat egitea	21	26,9%	16	18,6%	14	20,%0	15	21,4%	9	11,%0	14	15,9%	8	10,%0	7	11,3%	52	%17	52	%17
Aterpe bat egitea herrian	22	28,2%	20	23,3%	20	28,6%	17	24,3%	24	29,3%	17	19,3%	16	20,%0	11	17,7%	82	%28	65	%21
Plaza inguruko etxeak berreskuratzea	13	16,7%	15	17,4%	8	11,4%	13	18,6%	7	8,5%	18	20,5%	7	8,8%	5	8,1%	35	%12	51	%17
Kanposantua urigunetik urrunago eroatea	5	6,4%	6	7,%0	6	8,6%	7	10,%0	6	7,3%	12	13,6%	12	15,%0	14	22,6%	29	%10	39	%13
Udaletxea barriztau eta atontzea	3	3,8%	9	10,5%	7	10,%0	8	11,4%	15	18,3%	8	9,1%	14	17,5%	9	14,5%	39	%13	34	%11
Beste batzuk	4	5,1%	4	4,7%	3	4,3%	1	1,4%	7	8,5%	4	4,5%	2	2,5%	1	1,6%	16	%5	10	%3
Ed/Ee	3	3,8%	10	11,6%	6	8,6%	1	1,4%	3	3,7%	10	11,4%	10	12,5%	9	14,5%	22	%7	30	%10
Guztira	78	%100	86	%100	70	%100	70	%100	82	%100	88	%100	80	%100	62	%100	310	104%	306	%100

## 4. BLOKEA. UDAL AZPIEGITURAK ETA EKIPAMENTUAK

Inkestaren azterketa kuantitatiboaz gainera, herritarrek **modu kualitatiboan** be emon ahal izan dabe euren eretxia (ez da estadistiketan ageri). Hainbat modu izan dabe hori egiteko, esate baterako, galdetegian horretarako berenberegiz prestatutako espazioetan, **blogean, herritarren gutunontzietan**, etab. Honeek dira Larrabetzuko herritarrek azpiegitura eta ekipamentuen arloan egindako eskaera nagusiak:

### Kirol ekipamentuak

- **Kiroldegia handitzea** (kirol barriak sartuz, esate baterako, tenisa, paddlea, squasha, errokodromoa, etab.) eta ugerlekuaren mantenimentua hobetzea (estalgi bat eginez, udan zein neguan erabili ahal izateko), gimnasioan zerbitzu gehiago ipintea (spa, jacuzzi, saunea, etab.).
- **Ikastetxeko instalazioak hobetzea**; erabilera barrietarako barrizatzea eta segurtasuna hobetzea.
- **Frontoia barrizatzea** (itoginak, uralitako teilatua, etab.) eta astialdi eta kultur jardueretarako egokitzea.
- **Futbol zelaia barrizatzea**, zahar gelditu da eta.
- **Instalazioak dibersifiketea**, Goikoelexalden frontoia ipiniz, beste auzune batzuetan saskibaloia pistak, etab.
- **Skate-park** bat egitea.

### Kultur ekipamentuak

- **Dagozan kultur ekipamentuak barrizatzea**. Hori Bai birmoldatzea udalaren kontura, bere autogestino ereduagaz segidu ahal izan daian, Goikoelexaldeko txokoko tximinia hobetzea eta umeentzako espazio bat sortzea. Usainak hobetzea eta aire girotua sartzea Angulerin.
- **Liburutegiko ordutegiak hobetzea**, eta zapatu goizetan be zabaltzea.
- **Ekitaldi areto handiagoa egitea**, Anguleri txiki geratzen da eta. Holan, zinerako, batzarretarako, antzerkirako, hitzaldietarako, etab. erabili ahal izango litzateke.
- **Erabilera askotarako areto bat sortzea, ekitaldietarako**, kontzertuetarako, dantzaldietarako, etab.
- **Espazio bat egitea lokalakaz**, herriko alkarteek erabili daiezan.
- **Aterpeak** egitea, umeek olgau daien.
- **Zibuen** mantenimentua hobetzea.

## 4. BLOKEA. UDAL AZPIEGITURAK ETA EKIPAMENTUAK

### Hezkuntza ekipamentuak

- **Haurreskola handitzea** (leku gehiago eta ordutegi zabalagoa). Eskolea eta Haurreskolea bateratzeko aukerak aztertzea.
- **Iudotekea handitzea** (leku gehiago eta ordutegi zabalagoa) eta azpiegiturak hobetzea zarata gitxiago egon daiten, jantokia hobetzea, etab.
- Hezkuntza arloan etorkizunean izango diren **beharrizanak aurreikustea**, lurrak gorde ahal izateko eta beharrak sortu ahala ekipamentuak eraikitzeko.

Orokorrean, **anbulatorioaren azpiegitura eta zerbitzuak hobetzea**. Hau da:

- Ordutegia zabaltzea
- Talde medikoa handitzea, eta familia-medikua ordezte.
- Zerbitzu gehiago emotea, batez be, pediatria, ginekologia, etxez etxeko geriatria, odol analisiak, etab. eskaintzeko.
- Arreta telefonikoa hobetzea.

## 4. BLOKEA. UDAL AZPIEGITURAK ETA EKIPAMENTUAK

Prozesuan zehar, udalean ordezkatura dagozan hiru talde politikoakaz be egin zan berba (PNV, ANV eta EB). Hona hemen ondorio nagusiak:

### **Kirol ekipamentuak**

- Desadostasuna dago herrian bertan egon behar daben edo, kostuak merkatzeko, mankomunidadekoak izan behar daben.
- Beste frontoiren bat egiteko aukerea aztertzeko eskatu da.

### **Kultur eta astialdi ekipamentuak**

- Astialdi espazio komunitarioak egitea eskatu da, esate baterako, aterpe bat egitea herriko plazan, parkea, etab.
- Kultur etxea eta liburutegia txiki gelditu dira eta handitu egin behar dira instalazioak eta zerbitzu gehiago eskaini.
- Zibuen mantenimentua hobetu egin behar da.
- Errromesen aterpetxe bat egitea aztertu leiteke.

### **Hezkuntza ekipamentuak**

- Haur eskolea eztabaida iturri da, daukan kokapenagaitik (eskolea non dagoan kontuan hartuta) eta hartu leiken ume-kopuruagaitik (plaza-kopurua, gaur eguneko eta etorkizuneko beharrezanei jagokenez).

### **Ekipamentu medikoak**

- Konsultategiak kexak hartu ditu, bai zerbitzu gitxi eskaintzeagaitik bai bertako langileek egiten daben beharragaitik.
- Aztertu egin behar dira edadekoek eskatzen dituen ekipamentuak (esate baterako, eguneko zentroa).

## 4. BLOKEA. UDAL AZPIEGITURAK ETA EKIPAMENTUAK

Prozesuan **herriko alkarteakaz** be berba egin zan (TXISPAMENDI GURASO ELKARTEA, GURE ETXEA ELKARTEA, MIKEL ARTETXE TXIRRINDULARI ELKARTEA, URITARRA FUTBOL TALDEA, IZAR ARGIA ABESBATZA, GAZTELUMENDI ABESBATZA eta HORI BAI). Hona hemen ondorio nagusiak:

### **Kirol ekipamentuak**

- Ugerlekua estaltzea (neguan erabilteko).
- Kiroldedia handitzea.
- Skate pista bat egitea.

### **Kultur eta astialdi ekipamentuak**

- Kultur jardueretarako leku bat behar da, izan be, Anguleri txikia da eta egitura txarra dauka (igogailu bat dago erdian).

### **Hezkuntza ekipamentuak**

- Ikastetxea handitzea, abadetxea erabiliz, eta ikastetxeko segurtasun sistemak barrizatzea.
- Ludoteka zerbitzua handitzea.
- Liburutegiko ordutegia zabaltzea eta ikasketa-gela gehiago ipintea.

### **Ekipamentu medikoak**

- Anbulatorioa behar da, konsultategia ez da nahikoa (batez be, Txorierriko nagusiagaz komunikazio txarrak dagozako), eta zerbitzu gehiago behar dira (batez be, pediatria). Medikua kritikau egiten da eta dagoanaren ordez beste bat ipintea proposatu da.

## 4. BLOKEA. UDAL AZPIEGITURAK ETA EKIPAMENTUAK

Prozesuan, eztabaida-taldeak egin ziran **gazteakaz** (18-30 urte), **gaztetxoakaz** (14-17 urte) eta **umeakaz** (6-9 urte). Talde horreentzat, honeek dira arlo honetako gairik garrantzitsuenak:

### Kirol ekipamentuak

- **Ondoko ekipamentuak egitea eskatu da:** skate pista, bidegorriak, errokodromoa, ugerleku estaldua, ping pong mahaiak ipintea. Ugerlekuan txirrista bat ipintea eskatu dabe umeek.
- **Ondoko ekipamentuak aldatzea eskatu da:** frotoiaren erabilera doakoa izatea eta ordutegia zabaltzea, gimnasioa doakoa izatea, saskibaloi pista hobetzea, kiroldegiko dutxak hobetzea, futbol-zelaia konpontzea eta alokatzeko aukerea emotea.

### Kultur eta astialdi ekipamentuak

- **Ondoko ekipamentuak egitea eskatu da:** musika taldeek entseguak egiteko lokalak, doaneko wifi puntuak sortzea, gazteentzako lonjak atontzea.
- **Ondoko ekipamentuak aldatzea eskatu da:**
- Gazteek batez be **Anguleri hobetzea** eskatu dabe: behar-beharrezkoa da ikasteko leku bat atontzea (inguruko herrietako instalazioak erabili behar izaten ditue, esate baterako, Galdakaokoak), beheko solairua aldatzea bertan jarduerak egin ahal izateko eta liburuak eguneratzea.
- Gaztetxoek **Hori Bai konpondu** beharra azpimarratu dabe, kultur programa handiagoa izatea, zerbitzuen kostua txikitzea eta liburutegia handitzea.
- Umeek, aldiz, herri barruan **“eurentzako” lekuak** eskatzen ditue, bertan olgau ahal izateko, sekretutxoak esan, etab.; esate baterako, txabolatxoak izan leitekez, zibuak, euria egiten dauan egunetarako aterpea, etab.

### Hezkuntza ekipamentuak eta ekipamentu medikoak

- Gazteek baino ez ditue aitatzen ekipamendu medikoak eta hezkuntza ekipamentuak; logikoa da hori edadean dagoan aldea kontuan izanda. Batez be, **zerbitzu gehiago emotea** eskatzen dabe (pediatria, ginekologia eta behargin teknikoak ordeztzea - konsultategiko medikua-) eta **Haurreskolea eskolea dagoen lekura eroatea**, hain zuzen be, abadetxean ipintea.

## 4. BLOKEA. UDAL AZPIEGITURAK ETA EKIPAMENTUAK

### ONDORIOAK

- Inkestari erantzun deusien erdiak baino gehiagok pentsetan dabe herrian gaur egun dagozan kirol ekipamentuak ez dirala nahikoa (skate pista falta dira, saskibaloia pista, errokodromoa, ping pong, etab.). Halanda be, dagozanak sano begi onez ikusten dira, batez be, futbol zelaia eta frontoia.
- Ugerlekuak be puntuazino ona lortu dau, baina aldagelak hobeto jagoteko eta neguan erabilteko aukerea eskatu da. Eskolako kirol instalazioak hobeto jagoteko eskatu da, baita ordutegi zabalagoa izan daien be.
- Kultur ekipamentuak dirala eta, nahikoa diran ala ez baloretako orduan, eretxi desbardinak dagoz: erdiak baietz eta beste erdiak ezetz, gitxi gorabehera. Dana dala, Angulerik (Kultur Etxea) balorazino sano positiboak lortu ditu (nahiz eta batzuetan txiki gelditzen dan). Gazteentzat berenberegiko ekipamentu bat behar dan galdetzean, herritarren erdiek baietz dinoe, baina esan lei lonjek eta Hori Baik be beharizan hori beteten dabela. Dana dala, doaneko wifi puntuak botaten dira flatan, baita euria egiten dauanerako aterpea eta taldeentzako entsegu-lokalak.
- Kirol ekipamentuak dirala eta, azpimarratzekoa da herritar askok ezagutu be ez dituela egiten ekipamentu honeek eskaintzen dituen zerbitzuak. Dana dala, ezagutzen dituenen artean, nahikotzat jotzen ditue. Eskola publikoa eta Haurreskolea eta ludotekea begi onez ikusten dira, nahiz eta batuta egotea eta handiagoak izatea eskatzen dan, gaur eguneko eta etorkizuneko beharizanak kontuan hartuta.
- Osasun arloari jagokonez, gehienen eretxian, konsultategia dala eta, eskaintzen dituan zerbitzua nahikoa ez izateaz gainera (batez be, pediatria falta da), ez dira kalidadekoak (batez be medikua eta telefono bidezko arreta).
- Azkenik, herritar gehienek ez ditue ezagutzen gizarte ekipamentuak, dana dala, eguneko zentro bat edo/eta edadekoentzako edo/eta desgaitasuna dabenentzako egoitza bat beharko litzatekela pentsetan dabe.

## **EGITURA**

**O BLOKEA. Metodologia dala eta**

**1. BLOKEA. Datu soziodemografikoak**

**2. BLOKEA. Urigintza**

**3. BLOKEA. Ekonomia eta enplegua**

**4. BLOKEA. Udal azpiegiturak eta ekipamentuak**


**5. BLOKEA. Ondare historiko eta kulturala**

**6. BLOKEA. Ingurumena**

**7. BLOKEA. Garraioa**

## 5. BLOKEA. Ondare historiko eta kulturala

Udalak ondare-elementu honeen gainean esku hartu beharko baleu, zeintzu izango litzateke zure lehentasunak?



**Orokorrean**, udalak izan beharko leukezan esku-hartze lehentasunak dirala eta, azpimarratzekoak dira interes arkitektonikoko baserriak (%22,5), eta interes historiko eta kulturala daukien etxe bereziak (%15,2).

**Sexuka** eta edadeka ez da alde handirik ikusten.

“Beste batzuk” aukeran jasotako erantzunen artean honeek dagoz: iturrietan eta iturri-inguruetan zeozer egitea, Belarrinagatik Zornotzara arteko asfaltu bako bidea, Hori Bai katalogetea eta galdutako ermitak berreskuratzea.

41. taula. Onare-elementuak, lehentasunak... Edade eta sexuka

	18 - 35				36 - 45				46 - 65				65etik gora				Guztira			
	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak				
Antxinako nekazaritza eta ganadu bidea	8	%10	6	%7	12	%17	8	%11	10	%12	12	%14	9	%12	5	%8	39	%13	31	%10
Gerra zibileko hondakinak	9	%12	18	%21	7	%10	11	%16	3	%4	10	%11	1	%1	6	%10	20	%6	45	%15
Errotak	7	%9	6	%7	7	%10	7	%10	8	%10	11	%13	14	%18	12	%19	36	%12	36	%12
Santiago bidea	5	%6	12	%14	3	%4	7	%10	4	%5	4	%5	5	%6	7	%11	17	%6	30	%10
Galtzada erromatarra	4	%5	5	%6	6	%9	4	%6	7	%9	3	%3	2	%3	1	%2	19	%6	13	%4
Interes arkitektonikoko baserriak	17	%22	16	%19	15	%21	15	%21	18	%22	16	%18	26	%33	15	%24	76	%25	62	%20
Interes historiko eta kulturalako etxeak	14	%18	14	%16	13	%19	12	%17	12	%15	16	%18	7	%9	5	%8	46	%15	47	%15
Ondare baliabideak inbentariatzea	8	%10	6	%7	5	%7	6	%9	17	%21	8	%9	9	%12	5	%8	39	%13	25	%8
Beste proposamen batzuk	1	%1	1	%1	2	%3	0	%0	0	%0	1	%1	0	%0	1	%2	3	%1	3	%1
Ed/Ee	5	%6	2	%2	0	%0	0	%0	3	%4	7	%8	5	%6	5	%8	13	%4	14	%5
<b>Guztira</b>	<b>78</b>	<b>%100</b>	<b>86</b>	<b>%100</b>	<b>70</b>	<b>%100</b>	<b>70</b>	<b>%100</b>	<b>82</b>	<b>%100</b>	<b>88</b>	<b>%100</b>	<b>78</b>	<b>%100</b>	<b>62</b>	<b>%100</b>	<b>308</b>	<b>%100</b>	<b>306</b>	<b>%100</b>

## 5. BLOKEA. ONDARE HISTORIKO ETA KULTURALA

Inkestaren azterketa kuantitatiboaz gainera, herritarrek **modu kualitatiboan** be emon ahal izan dabe euren eretxia (ez da estadistiketan ageri). Hainbat modu izan dabe hori egiteko, esate baterako, galdetegian horretarako berenberegi prestatutako espazioetan, **blogean, herritarren gutunontzietan**, etab. Honeek dira Larrabetzuko herritarrek ondaren historiko eta kulturalaren arloan egindako eskaera nagusiak:

- **Baserriak** babestea
- **Galtzada** babestea eta Santiago biderako bultzatzea
- **Auzuneetako ermitak** berreskuratzea
- **Hori Bai** intereseko eraikin lez katalogotea
- **Gerra zibileko** hondakinak berreskuratzea
- **Herriko ondarea erabiltea turismoa erakarteko**, eragile ekonomiko lez industria ordeztu daian (gehien kontaminetan dauana behintzat)
- Herriko leku interesgarrietako **seinaleak hobetzea**. Ez dagoz behar dan moduan adierazota eta bai Larrabetzun denpora gitxien daroenak bai bisitan datozenak ez ditue topetan eta ez daukie horreen gaineko informazinarik.
- **Toponimia azterlan** gehiago egitea, beken bidez zein Labayru Ikastegiaren bidez.

## 5. BLOKEA. ONDARE HISTORIKO ETA KULTURALA

Prozesuan zehar, udalean ordezkatura dagozan hiru talde politikoakaz be egin zan berba (PNV, ANV eta EB). Hona hemen ondorio nagusiak:

**Larrabetzuk ondare handia dauka, eta planak ondare hori babestu, identifikau eta zabaldu egin beharko leuke:**

- Antxinako nekazaritza eta ganadu bideak.
- Gerra Zibileko hondakinak.
- Galtzada erromatarra.
- Errotea.
- Santiago bidea.
- Etxe bereziak, harrizkoak eta egurrezkoak.
- Ermitea eta ermitako leihoa.
- Jauregiak eta eraikin historikoak.

Gainera, bide seinaleztatuen katalogo bat egin beharko litzateke, paseoak errazteko.

## 5. BLOKEA. ONDARE HISTORIKO ETA KULTURALA

Prozesuan, eztabaida-taldeak egin ziran **gazteakaz** (18-30 urte), **gaztetxoakaz** (14-17 urte) eta **umeakaz** (6-9 urte). Talde horreentzat, honeek dira arlo honetako gairik garrantzitsuenak:

### **Kultur ondareari jagokonez...**

**Gazteriak** hauxe eskatzen dau batez be:

- Udalak Larrabetzuko ondare historikoa eskuratu eta gestionetako ahalmena izan daiala. Euren eretxian, ez leuke esku pribatuetan izan behar.
- Informazio gehiago ondare historikoaren gainean; komenigarria izango litzateke leku honeen inguruan ibilbideak sortzea eta horreen erabilera bultzatzeko jarduerak egitea.
- Anguleri kultura arloko eraikin lez erabiltea.
- Gaztetxoen eretxian Larrabetzuko ondare interesgarri guztia berreskuratu eta gorde beharko litzateke, eta umeek ez daukie honen gaineko eretxirik.

## 5. BLOKEA. ONDARE HISTORIKO ETA KULTURALA

### ONDORIOAK


- Orokorrean, herritarren eretxian, ondare historiko eta kultureko elementu interesgarri guztiak babestu beharko litzateke. Lehentasuna emon beharko litxakie interes arkitektonikoko baserriei eta interes historiko eta kultureko etxe bereziei, baina alde batera itxi barik antxinako nekazaritza eta ganadu bideak, Gerra Zibileko hondakinak, galtzada erromatarra, errotea, Santiago bidea, etab.
- Herritar batzuek herriko ondarea turismoa erakarteko erabiltea eskatzen dabe, eragile ekonomiko lez industria ordeztu daian (gehien kontaminetan dauana behintzat). Horretarako, seinaleak hobetu beharko litzateke, ondare hori errazago topetako eta behar dan moduan interpretetako.

## EGITURA

O BLOKEA. Metodologia dala eta

1. BLOKEA. Datu soziodemografikoak
2. BLOKEA. Urigintza
3. BLOKEA. Ekonomia eta enplegua
4. BLOKEA. Udal azpiegiturak eta ekipamentuak
5. BLOKEA. Ondare historiko eta kulturala
6. BLOKEA. Ingurumena
7. BLOKEA. Garraioa

## 6. BLOKEA. INGURUMENA



**Orokorrean**, arbolen ganean, eretxi desbardinak dagoz, izan be, erdiak baino gehiagok pentsetan dabe urigunean dagozan arbolak **nahikoa dirala** (%56,4), baina %40k baino apur bat gehiagok ez dirala nahikoa dinoe (%41).

**Sexuka**, ez dago alde handirik, baina andrazkoen artean gizonzkoen artean baino gehiagok pentsetan dabe nahikoa dirala (%60 eta %53 hurrengorik hurrengo).


**Edadeka**, 36 eta 45 urte arteko gizonzkoen erdiak baino gehiagok pentsetan dau ez dirala nahikoa (%51).

42. taula. Urigunean dagozan arbolak... Edadeka eta sexuka

	18 - 35		36 - 45		46 - 65		65etik gora		Guztira											
	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak										
Gitxiegi	18	%46	19	%44	14	%40	18	%51	14	%34	22	%50	11	%28	10	%32	<b>57</b>	<b>%37</b>	<b>69</b>	<b>%45</b>
Nahikoa	20	%51	22	%51	21	%60	17	%49	26	%63	22	%50	25	%64	20	%65	<b>92</b>	<b>%60</b>	<b>81</b>	<b>%53</b>
Lar	0	%0	1	%2	0	%0	0	%0	0	%0	0	%0	1	%3	1	%3	<b>1</b>	<b>%1</b>	<b>2</b>	<b>%1</b>
Ed/Ee	1	%3	1	%2	0	%0	0	%0	1	%2	0	%0	2	%5	0	%0	<b>4</b>	<b>%3</b>	<b>1</b>	<b>%1</b>
<b>Guztira</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>43</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>41</b>	<b>%100</b>	<b>44</b>	<b>%100</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>31</b>	<b>%100</b>	<b>154</b>	<b>%100</b>	<b>153</b>	<b>%100</b>

## 6. BLOKEA. INGURUMENA

Larrabetzuko argiak (kaleko argiak)...



Orokorrean, dagozan kaleko argiak **nahikoa dirala** pentsetan dabe herritarrek (%57,3); dana dala, %30en eretxian, lar dagoz.


**Edade eta sexuka** joera berbera da.

43. taula. Larrabetzuko argiak (kaleko argiak)... Edade eta sexuka

	18 - 35		36 - 45		46 - 65		65etik gora		Guztira											
	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak										
Gitxiegi	5	%13	5	%12	2	%6	2	%6	5	%12	1	%2	3	%8	4	%13	<b>15</b>	<b>%10</b>	<b>12</b>	<b>%8</b>
Nahikoa	26	%67	19	%44	20	%57	17	%49	27	%66	28	%64	22	%56	17	%55	<b>95</b>	<b>%62</b>	<b>81</b>	<b>%53</b>
Lar	7	%18	18	%42	12	%34	14	%40	8	%20	12	%27	12	%31	9	%29	<b>39</b>	<b>%25</b>	<b>53</b>	<b>%35</b>
Ed/Ee	1	%3	1	%2	1	%3	2	%6	1	%2	3	%7	2	%5	1	%3	<b>5</b>	<b>%3</b>	<b>7</b>	<b>%5</b>
<b>Guztira</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>43</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>41</b>	<b>%100</b>	<b>44</b>	<b>%100</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>31</b>	<b>%100</b>	<b>154</b>	<b>%100</b>	<b>153</b>	<b>%100</b>

## 6. BLOKEA. INGURUMENA

Larrabetzun dagoan zaratea...



**Orokorrean**, dagoan zaratea normalizat joten da (%72) eta %16,6k bakarrik pentsetan dau gehiegizkoa dala.

**Sexuka** joera berbera da.


**Edadeari jagokonez**, kontaminazio akustikoa dagola dinoenen artean, 65 urtetik gorako gizonetzkoak (%32) eta 36 eta 45 urte arteko andrazkoak nabarmentzen dira.

44. taula. Larrabetzun dagoan zaratea... Edade eta sexuka

	18 - 35				36 - 45				46 - 65				65etik gora				Guztira			
	Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak	
Gitxi	5	%13	7	%16	6	%17	6	%17	1	%3	4	%9	1	%3	4	%13	13	%8	21	%14
Normala	27	%69	34	%79	25	%71	27	%77	27	%68	33	%75	31	%79	17	%55	110	%71	111	%73
Lar	7	%18	2	%5	4	%11	2	%6	12	%30	7	%16	7	%18	10	%32	30	%19	21	%14
Ed/Ee	0	%0	0	%0	0	%0	0	%0	1	%3	0	%0	0	%0	0	%0	1	%1	0	%0
<b>Guztira</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>43</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>40</b>	<b>%100</b>	<b>44</b>	<b>%100</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>31</b>	<b>%100</b>	<b>153</b>	<b>%99</b>	<b>153</b>	<b>%100</b>

## 6. BLOKEA. INGURUMENA

Zaborrak batzeko sistema dala eta



Zaborrak batzeko sistemeari emon jakon batez besteko puntuazioa **6,92koa** izan da.


**Sexuka eta edadeka** ez da alde handirik ikusten. Halanda be, zaborrak batzeko sistema ondoen ikusten dabenak 65 urtetik gorako gizonezkoak dira (7,9) eta txartoen baloretan dabenak, barriz, 36 eta 45 urte bitarteko andrazkoak (6,1).

45. taula. Zaborrak batzeko sistema dala eta. Edade eta sexuka

	18 - 35		36 - 45		46 - 65		65etik gora		Guztira											
	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak										
1	0	%0	1	%2	3	%9	1	%3	0	%0	2	%5	0	%0	5	%3	4	%3		
2	0	%0	0	%0	0	%0	1	%3	1	%2	3	%7	0	%0	0	%0	1	%1	4	%3
3	0	%0	2	%5	3	%9	3	%9	2	%5	3	%7	1	%3	1	%3	6	%4	9	%6
4	3	%8	1	%2	5	%14	2	%6	1	%2	2	%5	0	%0	0	%0	9	%6	5	%3
5	5	%13	2	%5	2	%6	5	%14	3	%7	5	%11	3	%8	2	%6	13	%8	14	%9
6	1	%3	6	%14	0	%0	5	%14	6	%15	3	%7	2	%5	1	%3	9	%6	15	%10
7	12	%31	11	%26	8	%23	5	%14	6	%15	11	%25	5	%13	2	%6	31	%20	29	%19
8	8	%21	14	%33	11	%31	8	%23	18	%44	8	%18	16	%41	18	%58	53	%34	48	%31
9	6	%15	4	%9	2	%6	2	%6	1	%2	2	%5	2	%5	2	%6	11	%7	10	%7
10	4	%10	1	%2	1	%3	3	%9	3	%7	5	%11	8	%21	5	%16	16	%10	14	%9
Ed/Ee	0	%0	1	%2	0	%0	0	%0	0	%0	0	%0	0	%0	0	%0	0	%0	1	%1
<b>Guztira</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>43</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>41</b>	<b>%100</b>	<b>44</b>	<b>%100</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>31</b>	<b>%100</b>	<b>154</b>	<b>%100</b>	<b>153</b>	<b>%100</b>
<b>Batez beste</b>	<b>7,3</b>		<b>7,0</b>		<b>6,1</b>		<b>6,3</b>		<b>7,0</b>		<b>6,8</b>		<b>7,5</b>		<b>7,9</b>		<b>7,0</b>		<b>6,8</b>	

## 6. BLOKEA. INGURUMENA

Zaborrak berzikletako beharrezkoa da beste neurririk hartzea?



**Orokorrean**, jenteak pentsetan dau zaborrak berzikletako beharrezkoa dala, dagozanez gainera, beste neurri batzuk hartzea.

**Sexuka, andrazko gehienek**, %57k, ez dabe beharrezkotzat jotzen, baina gizonetzkoen %54k beharrezkoa dala pentsetan dabe.

**Edadea kontuan hartuta** antzeko zeozer jazoten da; edade-tarte guztietan andrazkoen eretxian ez da beharrezkoa beste neurririk hartzea, baina gizonetzkoen kasuan, bai.


Larrabetzun zaborrak berzikletea dala eta, itxura baten, gizonetzkoak dagoz konzienziauen.

46. taula. Zaborrak berzikletako beharrezkoa da beste neurririk hartzea? Edade eta sexuka

	18 - 35		36 - 45		46 - 65		65etik gora		Guztira											
	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak										
Bai	16	%41	30	%70	14	%40	20	%57	18	%44	25	%57	9	%23	8	%26	<b>57</b>	<b>%37</b>	<b>83</b>	<b>%54</b>
Ez	21	%54	13	%30	20	%57	15	%43	23	%56	18	%41	24	%62	20	%65	<b>88</b>	<b>%57</b>	<b>66</b>	<b>%43</b>
Ed/Ee	2	%5	0	%0	1	%3	0	%0	0	%0	1	%2	6	%15	3	%10	<b>9</b>	<b>%6</b>	<b>4</b>	<b>%3</b>
<b>Guztira</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>43</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>41</b>	<b>%100</b>	<b>44</b>	<b>%100</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>31</b>	<b>%100</b>	<b>154</b>	<b>%100</b>	<b>153</b>	<b>%100</b>

## 6. BLOKEA. INGURUMENA

Estolda sistemea dala eta




**Orokorrean**, estolda sistemeari emon jakon batez besteko puntuazioa **6,14koa** izan da.

**Sexuka eta edadeka** ez da alde handirik ikusten batez besteko orokorrari jagokonez. Estolda sistemea ondoen ikusten dabenak 65 urtetik gorako gizonezkoak dira eta txartoen baloretan dabenak, barriz, 36 eta 45 urte bitarteko gizonezkoak.

47. taula. Estolda sistemea dala eta. Edade eta sexuka

	18 - 35		36 - 45		46 - 65		65etik gora		Guztira											
	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak	Andrak	Gizonak										
1	0	%0	4	%9	0	%0	0	%0	1	%2	2	%5	4	%10	1	%3	5	%3	7	%5
2	0	%0	1	%2	0	%0	1	%3	0	%0	1	%2	3	%8	1	%3	3	%2	4	%3
3	1	%3	1	%2	1	%3	0	%0	1	%2	0	%0	3	%8	1	%3	6	%4	2	%1
4	3	%8	5	%12	1	%3	4	%11	1	%2	3	%7	0	%0	1	%3	5	%3	13	%8
5	4	%10	3	%7	5	%14	4	%11	4	%10	7	%16	1	%3	2	%6	14	%9	16	%10
6	3	%8	6	%14	3	%9	6	%17	6	%15	6	%14	3	%8	0	%0	15	%10	18	%12
7	2	%5	4	%9	5	%14	3	%9	8	%20	5	%11	3	%8	6	%19	18	%12	18	%12
8	3	%8	4	%9	3	%9	1	%3	6	%15	6	%14	5	%13	9	%29	17	%11	20	%13
9	0	%0	3	%7	1	%3	1	%3	0	%0	0	%0	2	%5	1	%3	3	%2	5	%3
10	1	%3	2	%5	2	%6	0	%0	1	%2	2	%5	6	%15	4	%13	10	%6	8	%5
Ed/Ee	22	%56	10	%23	14	%40	15	%43	13	%32	12	%27	9	%23	5	%16	58	%38	42	%27
<b>Guztira</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>43</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>41</b>	<b>%100</b>	<b>44</b>	<b>%100</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>31</b>	<b>%100</b>	<b>154</b>	<b>%100</b>	<b>153</b>	<b>%100</b>
<b>Batez beste</b>	<b>5,9</b>		<b>5,7</b>		<b>6,6</b>		<b>5,6</b>		<b>6,4</b>		<b>6,8</b>		<b>6,0</b>		<b>7,0</b>		<b>6,2</b>		<b>6,1</b>	

## 6. BLOKEA. INGURUMENA



**Orokorrean**, Larrabetzun erreka guztiak lohi dagozala pentsetan dau jenteak (%31,3). Gero, %28,3rentzat, batzuk baino ez dagoz lohi.

**Sexuka**, gizonezkoen %37k baietz dino, danak dagozala lohi, eta andrazkoen %30ek batzuk dagozala lohi.

**Edadeka**, andrazkoek edade-tarte guztietan dinoe erreka batzuk lohi dagozala, 65 urtetik gorakoek izan ezik; horreek dinoe danak dagozala lohi. Gizonezkoen artean zenbat eta zaharragoak izan eretxi gero eta hobea daukie, 65 urtetik gorakoen artean izan ezik; horreentzat erreka guztiak dagoz lohi.

48. taula. Lohi dagoz errekak Larrabetzun? Edade eta sexuka

	18 - 35				36 - 45				46 - 65				65etik gora				Guztira			
	Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak	Gizonak		
Ez	8	%21	10	%23	10	%29	10	%29	9	%22	18	%41	7	%18	4	%13	34	%22	42	%27
Bai, danak	8	%21	17	%40	8	%23	7	%20	10	%24	13	%30	13	%33	20	%65	39	%25	57	%37
Bai, batzuk	11	%28	13	%30	11	%31	14	%40	16	%39	11	%25	8	%21	3	%10	46	%30	41	%27
Ed/Ee	12	%31	3	%7	6	%17	4	%11	6	%15	2	%5	11	%28	4	%13	35	%23	13	%8
<b>Guztira</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>43</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>41</b>	<b>%100</b>	<b>44</b>	<b>%100</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>31</b>	<b>%100</b>	<b>154</b>	<b>%100</b>	<b>153</b>	<b>%100</b>

## 6. BLOKEA. INGURUMENA

Inkestaren azterketa kuantitatiboaz gainera, herritarrek modu kualitatiboan be emon ahal izan dabe euren eretxia (ez da estadistiketan ageri). Hainbat modu izan dabe hori egiteko, esate baterako, galdetegian horretarako berenberegiz prestatutako espazioetan, **blogean, herritarren gutunontzietan**, etab. Honeek dira Larrabetzuko herritarrek ingurumenaren arloan egindako eskaera nagusiak:

### Erreakak dirala eta...

- Orokorrean, erreakak egoera txarrean dagozala nabarmentzen da, sasiz beteta, jagon barik, kontaminata leku batzuetan (besteak beste, zerratokiaren, Terrazos Vascos edo Conten enpresen erruz), ezelango bizi barik.
- Azpimarratzeakoa da, batez be, sano txarto dagoala Sarrikolan, Zubitalden, Delicass inguruan, etab., eta kasu zehatz lez aitatzen dira Iturrikoetxe errekatxoa, Gaztelumendi kaleko ubidea eta Aretxabalgane errekea Eleixoste eta Zubibarriko inguruetan.

### Ingurumeneko hobekuntzak dirala eta...

- Berzikletako **kontainer gehiago** ipintea eskatu da (eta kontainer mueta gehiago be bai), piletarako, txakur-kaketarako, orioa botateko, cd-etarako, konposterako, etab.
- **Ibilgailuen trafikoa kentzea** oinezkoentzako lekuetatik eta, orokorrean, urigune osotik.
- **Argien kalidadea hobetzea** herriaren kanpokaldean eta argiaren intensidadea bajetea herriguneetan.
- Kanpokaldean beharrezkoa da **estolderia hobetzea**.
- **Loroñobehekoan** beira-hondakin asko sortzen dituan jatetxe bat dago eta ez dauka kontainerrik. Antzeko beste kasu batzuk be kontuan hartzea.
- **Aireportuaren** kontaminazio akustikoa gitxitzea, batez be gauean.
- **Bertoko arbola gehiago** sartzea.
- Herritarren artean **ingurumenaren gaineko konzienziarazioa** gehiagotzea.
- Errekei barriro be **bizia emotea**, batez be karramarroakaz (lehen baegozan, eta orain desagertu egin dira).
- Boroako zentralak sortutako **kontaminazioa neurtzea**.

## 6. BLOKEA. INGURUMENA

Prozesuan zehar, udalean ordezkatura dagozan hiru talde politikoakaz be egin zan berba (PNV, ANV eta EB). Hona hemen ondorio nagusiak:

### Errekak dirala eta...

- Errekak lohi egotea eta uriolak kezka iturri dira. Aztertu egin behar dira ubideak, baita erreketan egin leitekezan jarduerak be, egoerea hobetzeko.

### Ingurumeneko hobekuntzak dirala eta...

- **Contenek** gaitzespen sentimentua eragiten dau herri guztian. Dana dala, enpresak baldintza legal eta teknikoak beteten dituan ala ez adierazotean, alderdien artean desadostasunak dagoz.
- Udalak eredugarria izan behar dau **energiaren arloan**. Energia konsumoa gitxitu behar dau (kaleko argiak, argi kontaminazioa, etab.).
- Jentearen eretxian, **garraio pribadua lar erabilten da**, herrian denda gitxi dagoalako, garraio publikoaren eskaintza txikia dalako eta norbere kotxea erabilteko kultura zabaldua dagoalako.

## 6. BLOKEA. INGURUMENA

Prozesuan **herriko alkarteakaz** be berba egin zan (TXISPAMENDI GURASO ELKARTEA, GURE ETXEA ELKARTEA, MIKEL ARTETXE TXIRRINDULARI ELKARTEA, URITARRA FUTBOL TALDEA, IZAR ARGIA ABESBATZA, GAZTELUMENDI ABESBATZA eta HORI BAI). Hona hemen ondorio nagusiak:

### Errekak dirala eta...

- Gehiagotan garbitzeko proposatu da; horrek uriolak eragozteko balioko leuke. Halanda be, herritarrek ez daukie argi norena dan ardura hori.

### Ingurumeneko hobekuntzak dirala eta...

- Ingurumenaren arloan, kezka iturririk handiena, alkarrizketa guztietan agertu izan dana, **Conten** enpresearen egoerea eta enpresa horren gaineko informazio faltea da.
- **Zaratak dirala eta**, ez da arazo larregirik emoten dauan kontua; abioiek edo zerratokiak igual...
- **Usainak** dirala eta, batzuetan Eubako paper-fabrikatik usaina heltzen dala esan dabe.

## 6. BLOKEA. INGURUMENA

Prozesuan, eztabaida-taldeak be egin ziran **herriko agente ekonomikoakaz**. Ez doguz izenak esango, baina hona hemen berauon ezaugarriak: autonomoak, nekazaritza eta abeltzaintzako esplotazioak, herriko merkataritza eta enpresa industrialak. Honeek dira ondorio nagusiak:

### **Ingurumeneko hobekuntzak dirala eta...**

- Kaleko argien ordutegia laburtzea proposatu da, baita intensitatea txikitzea be. Eta argi gehiago ipintea leku jakin batzuetan, esate baterako, Berrezoaga poligonoan edo futbol zelaiaren inguruan. Jentearen arabera, kaleko argiei jagokenez, desoreka handiak dagoz herriko alde batzuen eta beste batzuen artean.
- Zaborrak batzea dala eta, jenteak enpresen ardurea dala onartu arren, herrian zaborrak gaika batu ahal izateko kontainer gitxiegi daua pentsetan dau.
- Gainera, estolda-sistema kaskarra kritikau egiten dabe, baita erakunde publikoek errekek zelan gestionetan daben be.

## 6. BLOKEA. INGURUMENA

Prozesuan, eztabaida-taldeak egin ziran **gazteakaz** (18-30 urte), **gaztetxoakaz** (14-17 urte) eta **umeakaz** (6-9 urte). Talde horreentzat, honeek dira arlo honetako gairik garrantzitsuenak:

### Ingurumeneko hobekuntzak dirala eta...

**Gazteriak** hauxe eskatzen dau batez be:

- Bertoko arbolak sartzea, herrian pinu lar dagoala pentsetan dabe eta. Gainera, euren eretxian, errekek lohi dagoz eta gitxieneko mantenimentua behar dabe, gaur egun ez dago ezer eta.
- Eukiontzi gehiago ipintea eta materia organikoa batzeko puntu bat zehaztea.
- Eguzki-plakak ipintea eraikin publiko guztietan.
- Argi-kontaminazioa dala eta, gazteek aitatu eben desoreka dagoala urigunearen eta kanpokaldearen artean. Urigunean argi gehiegi dago, baina kanpokaldean, aldiz, oso eskasa dala pentsetan dabe, Goikoelexaldeko tartean izan ezik.
- Zaratea dala eta, kexak, batez be, Zerratokiaren, Tubos Beitia enpresearen (gauzez) eta Terrazos Vascos enpresearen inguruan egin dira.
- **Gaztetxoek** eta **umeek** ez eben ingurumena aitatu euren kezka nagusien artean. Dana dala, euren eretxian, konzienziarino handiagoa behar da herritarren artean ingurumen arloan, batez be, berziklatzeari eta gizabidezko portaerari (txakur-kakak, etab.) jagokenez.

## 6. BLOKEA. INGURUMENA

### ONDORIOAK

Orokorrean, **ingurumena dala eta, herriaren balorazino nahiko positiboa egin da.**

- Kaleko argiei jagokenez, nahikoa dagozala eristen deustie, zaratea normalaren barruan dago eta urigunean dagozan arbolak nahikoa dira (%56,4), nahiz eta beti dan komenigarria arbola gehiago sartzea.
- Berziklatzeko sistemak dirala eta, balorazino ona egin da, bai zaborrak batzeko sistemearen, bai berziklatzeko dagozan eukiontzien (kanpokaldean gehiago ipini leitekez, eta beste mueta batzuetakoak probau) baita estolda sistemearen gainean be.
- Erreken egoerea dala eta, beste eretxi bat dago: orokorrean, lohi dagozala pentsetan dabe, batez be Sarrikola, Zubitalde edo Delicass inguruetan.
- Azkenik, barriro be azpimarratu behar da herritarrak Conten enpresearen kontra dagozala.

## **EGITURA**

**O BLOKEA. Metodologia dala eta**

**1. BLOKEA. Datu soziodemografikoak**

**2. BLOKEA. Urigintza**

**3. BLOKEA. Ekonomia eta enplegua**

**4. BLOKEA. Udal azpiegiturak eta ekipamentuak**


**5. BLOKEA. Ondare historiko eta kulturala**

**6. BLOKEA. Ingurumena**

**7. BLOKEA. Garraioa**

## 7. BLOKEA. GARRAIOA

Larrabetzutik nora dagoan garraioa



Larrabetzuko garraio publikoak bete behar dituan zerbitzuen artean lehentasuna dauka, argi eta garbi, Galdakaoko ospitalerako zerbitzuak; inkestari erantzun deusien %47k erantzun dabe hori; gero, Zornotza eta Gernikarako loturak aitatu ditue.

**Beste batzuk** aukerearen barruan Lezamako trenerako, metrorako eta beste udalerrri batzuetarako (Bilbao, Mungia eta hondartzak) loturak aitatu dira.


**Edadeka eta sexuka**, ez da aparteko alderik ikusten; Galdakaoko ospitalerako eta Zornotza eta Gernikarako zerbitzuak dira gehien aitutzen dituenak bai gizonezkoek bai andrazkoek.

49. taula. Larrabetzutik nora dagoan garraioa. Edade eta sexuka

	18 - 35				36 - 45				46 - 65				65etik gora				Guztira			
	Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak	
Galdakaoko ospitalea	34	%44	33	%38	28	%40	32	%46	41	%50	38	%43	38	%49	30	%48	141	%46	133	%43
Aireportua	10	%13	8	%9	6	%9	5	%7	10	%12	7	%8	6	%8	3	%5	32	%10	23	%8
Durangaldea	4	%5	13	%15	6	%9	7	%10	2	%2	8	%9	4	%5	2	%3	16	%5	30	%10
Zornotza-Gernika	15	%19	11	%13	15	%21	8	%11	11	%13	6	%7	5	%6	8	%13	46	%15	33	%11
Beste batzuk	7	%9	9	%10	6	%9	8	%11	13	%16	17	%19	8	%10	4	%6	34	%11	38	%12
Lezamako tren	2	%3	3	%3	1	%1	1	%1	0	%0	4	%5	1	%1	1	%2	4	%1	9	%3
Bilbao	3	%4	3	%3	0	%0	1	%1	0	%0	0	%0	0	%0	0	%0	3	%1	4	%1
Metro Bilbao	0	%0	0	%0	3	%4	2	%3	0	%0	0	%0	0	%0	0	%0	3	%1	2	%1
Ed/Ee	3	%4	6	%7	5	%7	6	%9	5	%6	8	%9	16	%21	14	%23	29	%9	34	%11
<b>Guztira</b>	<b>78</b>	<b>%100</b>	<b>86</b>	<b>%100</b>	<b>70</b>	<b>%100</b>	<b>70</b>	<b>%100</b>	<b>82</b>	<b>%100</b>	<b>88</b>	<b>%100</b>	<b>78</b>	<b>%100</b>	<b>62</b>	<b>%100</b>	<b>308</b>	<b>%100</b>	<b>306</b>	<b>%100</b>

## 7. BLOKEA. GARRAIOA

### Garraio publikoaren kalitatea orokorrean



Garraio publikoari, batez beste, **6,18ko puntuazinoa** emon jako.

**Edadeari eta sexuari erreparatuta**, gehien baloretan dabenak 65 urtetik gorako gizonezkoak dira (8,1); andrazkoek (7,4) baino hobeto baloretan dabe. Dana dala, batez besteko bi horreek orokorra baino handiagoak dira.

Halanda ze, udal garraio publikoa nahiko ondo balorautako alderdia da edadekoen artean, nahiz eta edade horretakoak diran gehien eskatzen dituenak beste herri batzuekazo loturak edo zerbitzuak, lehen ikusi dogunez.

50. taula. Garraio publikoaren kalitatea orokorrean. Edade eta sexuka

	18 - 35				36 - 45				46 - 65				65etik gora				Guztira			
	Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak		Andrak		Gizonak	
1	4	%10	0	%0	2	%6	0	%0	0	%0	1	%2	0	%0	0	%0	6	%4	1	%1
2	3	%8	0	%0	2	%6	1	%3	0	%0	1	%2	1	%3	0	%0	6	%4	2	%1
3	7	%18	5	%12	1	%3	3	%9	0	%0	3	%7	0	%0	0	%0	8	%5	11	%7
4	4	%10	4	%9	4	%11	7	%20	0	%0	5	%11	1	%3	0	%0	9	%6	16	%10
5	11	%28	10	%23	8	%23	3	%9	9	%22	1	%2	5	%13	0	%0	33	%21	14	%9
6	4	%10	7	%16	6	%17	5	%14	6	%15	10	%23	3	%8	3	%10	19	%12	25	%16
7	2	%5	9	%21	7	%20	3	%9	12	%29	8	%18	8	%21	7	%23	29	%19	27	%18
8	2	%5	4	%9	4	%11	7	%20	11	%27	8	%18	11	%28	11	%35	28	%18	30	%20
9	0	%0	2	%5	1	%3	0	%0	1	%2	2	%5	1	%3	3	%10	3	%2	7	%5
10	1	%3	0	%0	0	%0	1	%3	1	%2	1	%2	7	%18	7	%23	9	%6	9	%6
Ed/Ee	1	%3	2	%5	0	%0	5	%14	1	%2	4	%9	2	%5	0	%0	4	%3	11	%7
<b>Guztira</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>43</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>	<b>41</b>	<b>%100</b>	<b>44</b>	<b>%100</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>31</b>	<b>%100</b>	<b>154</b>	<b>%100</b>	<b>153</b>	<b>%100</b>
<b>Batez beste</b>	<b>4,4</b>		<b>5,8</b>		<b>5,5</b>		<b>5,7</b>		<b>6,8</b>		<b>6,1</b>		<b>7,4</b>		<b>8,1</b>		<b>6,0</b>		<b>6,4</b>	

## 7. BLOKEA. GARRAIOA

Inkestaren azterketa kuantitatiboaz gainera, herritarrek **modu kualitatiboan** be emon ahal izan dabe euren eretxia (ez da estadistiketan ageri). Hainbat modu izan dabe hori egiteko, esate baterako, galdetegian horretarako berenberegiz prestatutako espazioetan, **blogean, herritarren gutunontzietan**, etab. Honeek dira Larrabetzuko herritarrek garraioen arloan egindako eskaera nagusiak:

- **Gaueko eta asteburuetako garraioa** hobetzea.
- Autobuserako **markesinak** ipintea Sarrikolan.
- **Garraio publikoaren kostua gitxitzea** eta talde jakin batzuei laguntzak emotea (langabezian dagozanak, ikasleak, etab.).
- **Larrabetzu Lezamako trenagaz lotzeko** moduak aztertzea, bai artezean (trenbidea luzatu), bai lotura-autobusen bidez, bai bidegorri eta espaloien bidez.

## 7. BLOKEA. GARRAIOA

Prozesuan zehar, **udalean ordezkaturata dagozan hiru talde politikoakaz** be egin zan berba (PNV, ANV eta EB). Hona hemen ondorio nagusiak:

- Ez dago Galdakaoko ospitalera heltzen dan garraio zuzenik.
- Zornotza, Durango eta Gernikara be ez dago garraio egokirik.
- Lezamako Euskotreneko geltokirako eta, egiten danean, Galdakaoko metro geltokirako lotura-autobusak martxan ipinteko azterketa egitea proposatu da.

Prozesuan **herriko alkarteakaz** be berba egin zan (TXISPAMENDI GURASO ELKARTEA, GURE ETXEA ELKARTEA, MIKEL ARTETXE TXIRRINDULARI ELKARTEA, URITARRA FUTBOL TALDEA, IZAR ARGIA ABESBATZA, GAZTELUMENDI ABESBATZA eta HORI BAI). Hona hemen ondorio nagusiak:

- Alkarteen eretxian, orokorrean, garraio publikoko komunikazioak txarrak dira eta ez dira eraginkorrak. Batez be Galdakaoko ospitalerako eta Zornotzarako loturak falta dira, eta, era berean, leku horreetarako autobusak sarriago egon beharko litzatekez.
- Zelanbaiteko kontraesana be badagoala ikusten da, izan be, batetik, hobetu egin behar dirala esaten dabe (batez be andrazkoek eta edadekoek), eta, bestetik, "herri nortasuna galtzeko" arriskua ikusten dabe, garraioaren eraginez Larrabetzuk bere nortasuna galtzen badau eta lo-herri bihurtzen bada.
- Dana dala, garraio publiko gehiago ipini arren, jenteak kotxea erabilten segiduko dauala onartzen dabe, inguruan bide laster ugari dagoalako (Txorierriko korridorea, Artxandako tunelak, Santo Domingo, A8, etab.).
- Orokorrean, herrian aparkamentuak falta dirala pentsau arren, hori jazoten da "mundu guztiak aparkau gura daualako etxeko atean".

## 7. BLOKEA. GARRAIOA

Prozesuan, eztabaida-taldeak egin ziran **gazteakaz** (18-30 urte), **gaztetxoakaz** (14-17 urte) eta **umeakaz** (6-9 urte). Talde horreentzat, honeek dira arlo honetako gairik garrantzitsuenak:

### Garraioa dala eta...

**Gaztetxoek eta gazteek**, hauxe eskatzen dabe batez be:

- Garraiorako laguntasunak (edadekoentzako txartelen antzekoak), kostua sano handia dalako, eta ez dalako bidezkoa inguruko herriakaz alderatuta.
- Tren eta autobuserako txartel bakarria sortzea.
- Lotura-autobusa Lezamako trenera eta Usansolokora heltzeko; horrek, gainera, ospitalera heltzeko balio leike.
- Leioako EHUKo campusera joateko zuzeneko autobusa.
- Gaueko garraio gehiago, batez be asteburuetan, ondoko herrietako jaietara joateko, Bilbora joateko, etab. Gainera, herritik kanpora ekitaldiren bat dagoanean, udalak gestionau daiala garraioa eskatzen dabe, holan, danak batera joan ahal izateko.
- Gainera, gaztetxoek eskatu dabe **autobusetan itxi daiela bizikletea eroaten**.

**Umeek** hauxe eskatzen dabe batez be:

- Kotxe gitxiago egon daitela herri barruan.
- Kotxea etxe ondoan aparketako erosotasuna be eskatzen dabe.

## 7. BLOKEA. GARRAIOA

### ONDORIOAK

- Dagoan garraio publikoaren kalidadea begi onez ikusten da, nahiz eta faltan botaten dan leku batzuetarako konexino zuzena, bate be, Galdakaoko ospitaleagaz eta, apur bat gitxiago, Lezamako trenagaz, metroagaz eta Mungiaagaz.
- Gazteriak proposatutako hobekuntzen artean, hona hemen batzuk: gaueko eta asteburuetakoko garraioa hobetzea, garraio zuzena Leioako Campusera, garraio publikoaren kostua gitxitzea eta talde jakin batzuei laguntzak emotea (langabezian dagozanak, ikasleak, etab.).
- Batzuek Sarrikolan autobusarentzako markesinak ipintea be eskatzen dabe, baita Larrabetzu Lezamako trenagaz eta, egiten danean, Galdakaoko metroagaz lotzeko moduak aztertzea be.